# >anboto

TOKIKOM

2010eko abenduaren 3a
9. urtea- 397 zk.

durangaldeko astekaria | azokako ale berezia

www.anboto.org





# Sortzaileak eta zaleak, guztiak kulturgile Durangoko hitzorduan

> Erotismoz beteta dator 45. Euskal Liburu eta Disko Azoka abenduaren 4tik 8ra bitartean

> Imanol Urbieta musikari eta irakasleak jasoko du Argizaiola saria, abenduaren 4an


Txelu Angoitia. Geredriaga

KURDISTAN

## Milaka kilometroko zubia kulturen artean

**Herrialde gonbidatua** • Azoka guztian, eta, bereziki, domekan, Kurdistan ezagutzeko hainbat ekitaldi egingo dira Azokan. Milioika hiztun dituen arren, lau estaturen zapalkuntza jasan du eta jasaten du kurduen herriak.

3

HAUR LITERATURA

## Literatura jostagarri egiteko proposamena

**Berbaro** • Urtero legez, Erakustazoka ondoko Elkartegian Berbaro elkarteak ipuin-kontaketak, antzerki saioak, eskulanak, aurkezpenak eta beste hainbat saio burutuko ditu literatura umeei hurreratzeko.

16-17

AHOTSENEA

## Egileen lana hurretik ezagutzeko aukera

**Sortzaileak**• Hirugarren edizioa izango du Ahotseneak, zaleek sortzaileen lana zuzenean ikusi eta ezagutzeko jaio zen guneak. Goizetik iluntzera, etenik barik aurkezpenak eta kantaldiak ditugu eskura.

18-23







kokapena

# Nobedadez betetako hiru kale

| STAND | KALEA | STAND |
|---|---|---|
| .EUS Euskara eta euskal kultura interneten | Artekale | 25 |
| ABARKA | Artekale | 37-39 |
| AEK-AIZU! | Artekale | 59 |
| AFEDE | Goienkale | 4-6 |
| AGORILA | Artekale | 72 |
| AHAZTUAK/GITE-IPES/BILGUNE FEMINISTA | Artekale | 68 |
| AISE LIBURUAK | Goienkale | 62-65 |
| AIZKORRI ARGITALETXEA | Goienkale | 113 |
| ALBERDANIA | Goienkale | 41-46 |
| ALTAFFAYLLA-ARABERA | Goienkale | 53 |
| ARABAKO FORU ALDUNDIA | Artekale | 12 |
| ARANTZAZU EDIZIOAK | Barrenkale | 51 |
| ARGIA | Goienkale | 1-2 |
| ARTEZ - EUSKARA ZERBITZUA | Artekale | 46 eta 48 |
| ASKAPENA | Artekale | 66 |
| ATARAMIÑE KULTUR ELKARTEA | Artekale | 65 |
| AUNIA- NONDIK | Artekale | 49 |
| AZKUE FUNDAZIOA | Artekale | 92--94 |
| BABEL MUSIK | Artekale | 91 |
| BADIHARDUGU | Artekale | 84 |
| BAGA-BIGA | Barrenkale | 15-17 |
| BARTON FILMS | Barrenkale | 27 |
| BASSARAI | Goienkale | 38 |
| BBK | Artekale | 3-4 |
| BERRIA TALDEA | Goienkale | 74-76 |
| BERTSOLARI ALDIZKARIA | Barrenkale | 5 |
| BIDEHUTS | Barrenkale | 19 |
| BIDEOJOLASAK-AMETSA SOFT | Goienkale | 7 |
| BILBOKO UDALA | Artekale | 83 |
| BITARTE | Goienkale | 37 |
| BIZKAIKO FORU ALDUNDIA | Artekale | 7-9 |
| BIZKAIKO MUSEOAK | Artekale | 88 |
| BIZKAIKO URTXINTXA ESKOLA | Goienkale | 24 |
| BONBERENEA | Barrenkale | 14 |
| BRIAN'S RECORDS | Barrenkale | 18 |
| BRIXTON RECORDS | Barrenkale | 38 |
| CASA CRISTIANA EMANUEL | Artekale | 56 |
| DDT DISKAK GATAZKA GUNEA | Barrenkale | 10-bis |
| DEBA IBARREKO UDALAK | Artekale | 85 |
| DEIA | Goienkale | 72-73 |
| DESCLÉE | Goienkale | 8-9 |
| DEUSTUKO UNIBERTSITATEA | Artekale | 31-32 |
| DURANGALDEKO ARGITALPENAK | Artekale | 1 |
| DURANGOKO TURISMO BULEGOA | | |
| DURANGOKO UDALA | Artekale | 2 |
| EGUZKI BIDEOAK | Artekale | 52-53 |
| EHAEO/COAVN COLEGIO DE ARQUITECTOS | | |
| VASCO NAVARRO. DELEGACIÓN EN BIZKAIA | Artekale | 34 |
| EHAZE | Barrenkale | 56 |
| EKIN | Goienkale | 52 |
| EL MUNDO DE LOS PIRINEOS | Goienkale | 33-34 |
| ELHUYAR FUNDAZIOA | Artekale | 21-22 |
| ELHUYAR FUNDAZIOA | Artekale | 79-80 |
| ELKAR | Artekale | 40-42 |
| ELKAR | Goienkale | 77-90 |
| ELKAR | Barrenkale | 30-36 |
| ELKAR BANAKETA | Goienkale | 25-29 |
| ELKAR BANAKETA | Barrenkale | 6-8 |
| ELKAR BANAKETA | Barrenkale | 37 |
| ELKAR FUNDAZIOA | Artekale | 17-19 |
| ELKAR - ARGIAK | Barrenkale | 29 |
| ENA | Artekale | 55 |
| ENTZUN! | Barrenkale | 11 |
| EREIN | Goienkale | 18-23 |
| EROSKI | Artekale | 5-6 |
| ETOR-OSTOA | Artekale | 77-78 |
| EUSKAL DANTZARIEN BILTZARRA | Barrenkale | 59 |
| EUSKAL HERRIA ALDIZKARIA | Goienkale | 35-36 |
| EUSKAL HERRIA SOZIALISTA | Artekale | 67 |
| EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ | Artekale | 61 |
| EUSKAL HERRIKO IKASTOLAK | Goienkale | 10-17 |
| EUSKAL HERRIKO IKASTOLAK | Artekale | 95 |
| EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA | Artekale | 28-29 |
| EUSKAL PAPERGINTZA | Artekale | 47 |
| EUSKALEMA | Goienkale | 66 |
| EUSKALTZAINDIA | Artekale | 102-103 |
| EUSKO IKASKUNTZA | Artekale | 81-82 |
| EUSKO JAURLARITZA | Artekale | 13-16 |
| EUSKO LEGEBILTZARRA | Artekale | 89 |
| GAKOA | Artekale | 63 |
| GARA | Goienkale | 69-70 |
| GATUZAIN | Artekale | 76 |
| GAZTELUPEKO HOTSAK | Barrenkale | 23 eta 26 |
| GAZTERIAREN KONTSEILUA (EGK) | Goienkale | 68 |
| GAZTEZULO | Artekale | 51 |
| GEREDIAGA ELKARTEA | Artekale | 105 |
| GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA | Artekale | 10-11 |
| GOIATZ MULTIMEDIA, S.L. | Artekale | 96 |
| GOR DISKAK | Barrenkale | 40-42 |
| GURE LIBURUAK | Goienkale | 51 |
| H.A.B.E. | Artekale | 97-98 |
| HALA-DZIPO | Barrenkale | 48 |
| HAMAIKA TELEBISTA | Artekale | 26-27 |
| HEMEN-KARMEL | Barrenkale | 53 |
| HIK HASI | Barrenkale | 54 |
| HIRI RECORDS | Barrenkale | 46 |
| HOTSAK.COM | Barrenkale | 24-25 |
| IBAIZABAL | Goienkale | 114-121 |
| IDATZ | Barrenkale | 52 |
| IGELA | Goienkale | 40 |
| IKA | Artekale | 58 |
| IKAS PEDAGOGIA ZERBITZUA | Artekale | 73 |
| IRRIEN LAGUNAK | Artekale | 71 |
| JAKIN | Barrenkale | 3 |
| J.K. IRIZAR | Barrenkale | 47 |
| KAP PRODUKZIOAK | Barrenkale | 45 |
| KATXIPORRETA | Artekale | 69 |
| KLASIKART | Barrenkale | 49-50 |
| KULTURA KURDUA | Artekale | 104 |
| KUTXA FUNDAZIOA | Barrenkale | 1-2 |
| LA GALLINA VASCA | Goienkale | 67 |
| LABAYRU IKASTEGIA | Artekale | 86-87 |
| LANKU - BERTSOZALE ELKARTEA | Barrenkale | 61 |
| LEMURIA | Artekale | 62 |
| LEONEN ORROAK | Barrenkale | 9 |
| LUDITOYS | Goienkale | 3 |
| MAIATZ | Artekale | 74 |
| MALUTA | Artekale | 60 |
| MATXINSALTO | Artekale | 69 bis |
| MEETTOK | Goienkale | 47 |
| MENDEBALA DISKAK - MDSK | Barrenkale | 58 |
| MENDEBALDE KULTURA ALKARTEA | | |
| ADOREZ HIZTEGIAK XXI, S.L. | Artekale | 101 |
| METAK-ESAN OZENKI | Barrenkale | 20 |
| MEZULARI | Goienkale | 102-104 |
| MONDRAGON UNIBERTSITATEA | Artekale | 33 |
| MUGALARI | Goienkale | 71 |
| MUSIKHERRIA | Barrenkale | 13 |
| NABARRALDE | Goienkale | 50 |
| NBR ALDIZKARIA | Artekale | 50 |
| OIHUKA | Barrenkale | 21-22 |
| PAMIELA | Goienkale | 91-96 |
| PAMIELA-UDALBIDE-EKE | Goienkale | 97-98 |
| PIRRITX PORROTX ETA MARI MOTOTS | Artekale | 70 |
| PRESOEN LAGUNAK | Artekale | 64 |
| ROCK IZAR RECORDS | Barrenkale | 28 |
| RUN DOWN ENTERTAINMENT | Barrenkale | 39 |
| SABINO ARANA FUNDAZIOA | Artekale | 99-100 |
| SOFTEKIN INFORMATIKA | Artekale | 20 |
| SOINTEK PRODUKZIOAK | Artekale | 90 |
| SORTZEN-IKASBATUAZ ELKARTEA | Barrenkale | 55 |
| SU TA GAR | Barrenkale | 43 |
| SUA EDIZIOAK | Goienkale | 30-32 |
| SUSA-LITERATURA | Goienkale | 99-101 |
| TALKA RECORDS/ZAKURRAREN BIOLINA | Barrenkale | 44 |
| THE BALDE | Barrenkale | 12 |
| TMEO | Artekale | 54 |
| TRAVEL BUG | Goienkale | 48-49 |
| TRIKITIXA ELKARTEA | Barrenkale | 60 |
| TTARTTALO | Goienkale | 105-112 |
| TXALAPARTA | Goienkale | 54-61 |
| TXAPELGAMES | Artekale | 23-24 |
| TXERTOA | Artekale | 43-44 |
| TXISTULARI ELKARTEA | Barrenkale | 57 |
| UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA | Artekale | 30 |
| UNIVERSITY OF NEVADA PRESS | Barrenkale | 4 |
| UTRIUSQUE VASCONIAE | Goienkale | 39 |
| WWW.DDTGATAZKA.COM | Barrenkale | 10 |
| ZENBAT GARA ELKARTEA | Artekale | 57 |
| ZTK-EUSKALTZALEEN BILTZARRA | Artekale | 75 |
| ZUTOIA | Artekale | 35-36 |








# 2010eko egitaraua

## ABENDUAK 4

12:00 ***Inaugurazio ekitaldia. 'Maitasunaren arbola' ipuin-konferentzia epela*** (Elkartegian)

Joxemari Carrere ipuin kontalariak erotismoaren gainean berba egingo du hainbat kulturatako istorio erotikoen bitartez. Ahozko narrazio zaharretan erotismoak zer leku eduki duen kontatuko du; erotismoa bera zer ote den, hori izango du berbagai sarrera hitzaldian.

13:00 ***Ongi-etorria Azokara*** (Landakogunea plazan)

ENHEk eta Erraldek Bizkaiko bildotsak erreko dituzte eta ongi-etorri dastaketa eskainiko diete Durangoko Azokako bisitariei.

20:30 ***Gauean Argi–Argizaiola Saria*** (S. Agustin Kultur Gunean)

Imanol Urbietari emango dio aurten Gerediaga Elkarteak Argizaiola saria. Urbieta Zarautzen jaio zen 1934an. Musikari oparoa da. Batez ere, umeei zuzendutako musika egin du bere ibilbidean zehar, eta bere abesti asko herri-kanta bilakatu dira. Hezkuntza munduan ere, kanten bitartez irakasteko eredu bat sortu du. Urteetan egin duen eta egiten dabilen behar hori eskertuko dio Gerediaga elkarteak sari honekin.

## ABENDUAK 5

HERRIALDE GONBIDATUA: KURDISTAN

13:00 **Mahai-ingurua:** ***Euskara eta kurduera: estatu gabeko bi hizkuntza*** (Azokako aretoan)

Josune Ariztondo, Edurne Brouard, Royani Önen eta Daban Shadala.
Moderatzailea: Urtzi Urrutikoetxea

16:30 **Kurdistaneko abestiak eta dantzak (Haur Lireratura Aretoan)**

Zinar Ala eta Siwar Ala Espainian bizi diren aktibista kurduen eskutik, gaztetxoenei Kurdistaneko abesti laburrak eta dantzak erakutsiko dizkiete.

18:30 **Mahai-ingurua:** ***Nik ere badut hitza,*** adierazpen askatasunaz (Azokako aretoan)

Eser Uyansiz eta Martin Garitano.
Moderatzailea: Martxelo Otamendi

## ABENDUAK 6

19:00 **Tailer erotikoa, Manex Rekartegaz.** La Juguetería Erotic Toys dendakoa da Manex Rekarte, eta jostailu erotikoen jatorri, ezaugarri eta erabilerak erakutsiko ditu tailer erotikoan. Umoreagaz eta publikoaren laguntzagaz jardungo du Rekartek.

## ABENDUAK 7

18:30 **Mahai-ingurua:** ***Erotismoa sortzaileen begietan*** (Azokako aretoan)

Hainbat adierazpen artistikotako sortzaileek erotismoak euren esparruan daukan lekuari buruz hausnartuko dute.
Partaideak: Ivan del Campo (Zine zuzendaria), Kattalin Miner (Queer teoriaren jarraitzailea), Ines Osinaga (Gose taldeko abeslaria), Edorta Jimenez (idazlea) eta Jon Arano (komikilaria).
Moderatzailea Paddy Rekalde izango da.

## ABENDUAK 8

18:30 **Sari banaketa:** ***Durangaldea Bizi bideo lehiaketa*** (Azokako aretoan)

Gerediaga Elkarteak 13 eta 17 urte bitarteko gazteentzat bideo lehiaketa antolatu du Durangaldea gai hartuta.

20:00 **Azoka zarratzea, ibiltari b(i)eroekin**



# aretoko egitaraua

## ABENDUAK 4

11:00 ***Zer dakizu saskibaloiari buruz?***, Yolanda Echarte eta Eneko Goitia
11:30 ***Jira bira munduari begira***, Bizkaiko Urtxintxa eskola
12:00 ***Muskaria aldizkaria 30 urte beranduago***, Roge Blasco, Pablo Salgado eta Roberto Moso
12:30 ***Irrien lagunak kluba***, Elkar, Berria eta Katxiporreta
13:00 ***Emakumeok plazara webgunea***, Euskal Herriko Bilgune Feminista
13:30 ***Ortozik Sokaiderekin* (DVD)**, Sokaide taldea
14:00 ***Euskal Herriko erronka sozio-ekonomikoak***, Isabel Isasi, Xabier Oleaga, eta Irati Azkue
14:30 ***Nos quitaron todo* (dokumentala)**, Eguzki bideoak
16:00 **Maluta argitaletxeko nobedadeak**, Ritxi Lizartza, Xabier Strubell eta Sabrina Mizobe Rosa
17:00 **Mahai-ingurua: *Euskal kulturaren kolore guztiak***, Ortzadar, Deia, Grupo Noticias
18:00 ***Industri politika***, Adrian Zelaia.
18:30 ***Gurebook.com***, Alexis Mindegia, Julen Agirrezabala eta Ixiar Uria
19:30 ***Euskal Herriko Mikologia. Jentilen aztarnen atzetik***, Aritza Bergara

## ABENDUAK 5

11:00 ***Iruña-Veleiako euskarazko grafitoak***, Juan Martin Elexpuru
11:30 ***Laztantzen nauen eskua* (diskoa)**, Miren Fernandez
12:00 ***Denonartean: Nafarroako argitaldari-zigilu berria***, Inma Errea eta Keiko Suzuki
12:30 ***Barricada electricaos***, David Mariezkurrena, Fernando F. Garayoa eta Barricada taldea
13:00 **Mahai-ingurua: *Euskara eta kurduera: estatu gabeko bi hizkuntza***, Josune Ariztondo, Edurne Brouard, Royani Önen eta Daban Shadala. Moderatzailea: Urtzi Urrutikoetxea
14:00 ***Anitzak Hitzak Bunpada Sound***, Bunpada Sound taldea
14:30 **Poesia errezitaldia: idazle kurdu eta euskaldunak**, antolatzailea: Euskal Idazleen Elkartea
15:30 ***Pierre Narbaitz* antologia**, Euskaltzaleen Biltzarra
16:00 ***Iraupenean etorkizuna***, Euskaltzaleen Biltzarra
16:30 **Sarako Liburu Azoka**, Jean-Michel Garat, Daniel Landart eta Terexa Guijarro
17:00 ***Albokak 2.1 upgrade bizialdi berria* (disko-liburua)**, Ibon Koteron, Xabier Valle, eta Ruben Isasi.
17:30 ***Zigortzaileak* (filma)**, Alokatu S.L.
18:00 ***Idazlea zeu zara, irakurtzen duzulako***, Hik Hasi aldizkaria
18:30 **Mahai-ingurua: *Nik ere badut hitza* (adierazpen askatasunaz)**, Eser Uyansiz eta Martin Garitano. Moderatzailea: Martxelo Otamendi
19:30 ***Taupadak* (diskoa)**, Nahixan taldea

## ABENDUAK 6

11:00 **Irakasle agenda digitala**, Artez euskara zerbitzua eta Plazagunea
11:30 **Euskal Herriko Antzerkizale Elkartea**, aurkezpena
12:00 ***Xurdin, euskarametroak***, Sonia Ezkerra
12:30 ***Jagi-jagi. Historia del independentismo vasco***, Eduardo Renobales
13:00 ***Gertukoak-Ausencias***, Jesus Mari Arruabarrena
13:30 ***A mantagorri* (diskoa)**, Amaia Zubiria eta Edorta Andoni Murua
14:00 ***Izan, egin eta eragin... Euskal Herrian Euskaraz* (dokumentala)**, Xabier Amuriza, Ion Ansa eta Igone Lamarain
14:30 ***75eko iraila* (dokumentala)**, Eguzki bideoak
16:00 ***Agirre lehendakaria zin dagit***, Iñaki Goiogana eta Gontzal Mendibil
16:30 ***Zorion handiegia***, Nagore Tolosa
17:00 ***Gabonak kantuz eta soinuz***, Pello Zabala, Joan Luis Atxega eta Xabier Egaña
17:30 **Gaztezulo sariaren bideo proiekzioa**, Gaztezulo
18:00 **Mai-Be taldea**, Babelmusik
18:30 ***Gargantua melee* (diskoa)**, Atom Rhumba taldea
19:00 **Tailer erotikoa**, Erotik toys denda

## ABENDUAK 7

11:00 ***Euskara sarean josten***, Azkue fundazioa.
11:30 ***Tamur: Kangchenjungako harribitxia***, David Maeztu, Xabier Zabala eta Carlos Iglesias
12:00 ***Marraren beste aldean* (diskoa)**, Seiren taldea
12:30 ***Zapatisten ahotsa: bihotzetik bihotzera***, Pello Jauregi
13:00 ***Mikeltxo Uranga***, Utriusque Vasconiae SL
13:30 ***Bizi-bizirik* (diskoa)**, Gozategi taldeko Asier Gozategi eta Iñigo Goikoetxea.
14:30 ***Langile autonomia* (dokumentala)**, Eguzki bideoak
16:00 ***Sagarren denbora* (dokumentala)**, Eguzki bideoak
18:00 ***La religión en Euskal Herria***, Felix Plazer eta Paulo Agirrezabaltegi
18:30 **Mahaingurua: *Erotismoa sortzaileen begietan***, Ivan del Campo (Zine zuzendaria), Kattalin Miner (Queer teoriaren jarraitzailea), Ines Osinaga GOSE (abeslaria), Edorta Jimenez (idazlea) eta Jon Arano (komikilaria). Moderatzailea: Paddy Rekalde

## ABENDUAK 8

11:00 **EIRE-ren X. urteurrena**, hamar urteotan koordinatzaile nagusiak izan direnek egingo dute berba
12:00 **Prentsaurrekoa: Azokaren balorazioa**, Geredïga elkartea
12:30 ***Pantailen eragina hezkuntzan: bideojokoen kasua***, Jose Ignazio Imaz
13:00 ***Kultur performatibitatea eta gizarte fetitxegintza***, Kepa Fernandez de Larrinoa
14:30 ***828 kilometros sin retorno* (dokumentala)**, Eguzki bideoak
16:30 **Emon taldearen disko berria**, Babelmusik
17:00 ***Etnografía de la zona minera vizcaína. Fuentes orales y tradiciones musicales***, Ingrid Kuschick eta Raphaël Parejo-Coudert
17:30 ***Prohibido recordar***, Eguzki bideoak
18:30 **Sari banaketa: *Durangaldea bizi bideo sariketa***, Gerediaga elkartea eta Eroski Bidaiak

Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka
2010eko abenduaren 4tik 8ra

"erosketekin azokara"
Erosi saltokietan
Bisitatu Gerediaga Elkartea Azokan
Zorte on! zozketan
100 euro gastatu saltokietan
+dendak
durango bai
Durangaldeko Adiskideen gerediaga elkartea


ALMACENES
ARRASATE
TIEN 21
Intxaurrondo, 12 behea
Tel.: 94 681 34 85
48200 DURANGO
Kataide Industrigunea, pab.3 • 20500 Arrasate-Mondragon
Tel.: 943 77 13 52 - 77 00 34 • Fax: 943 77 13 13
1200 b/min 6 kg
A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA AWO/D 6130
265 € Whirlpool
1200 b/min 7 Kg
A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA L-7712S
350 € FAGOR
1200 b/min 8 kg
DIRECT DRIVE
A+ Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA WD-12811MD
390 € LG
7 kg
KONDENTSAZIOA
B Sailkapen energetikoa
LEHORGAILUA FSB-570B
365 € FAGOR
7 kg
KONDENTSAZIOA
B Sailkapen energetikoa
LEHORGAILUA T-56840-L
425 € AEG
A Sailkapen energetikoa
ONTZI-GARBIGAILUA 50872
375 € AEG
A Sailkapen energetikoa
GARBIGAILUA LJ-043X
360 € FAGOR
A Sailkapen energetikoa
INDUKZIOZKO PLAKA HK-633220
LABE PIROLITIKOA B-3781-5-M
950 € AEG
2000 X 600 X 600
NO FROST
A+ Sailkapen energetikoa
HOZKAILUA KGN-39A77
740 € BOSCH
1850 X 600 X 600
NO FROST
A+ Sailkapen energetikoa
HOZKAILUA KG36NX03
450 € SIEMENS
1850 X 600 X 600
NO FROST
A+ Sailkapen energetikoa
HOZKAILUA KG36N73
545 € SIEMENS
32 LE 4500 LED
465 € LG
42 LE 4500 LED
690 € LG
GARBIGAILUA ROOMBA 531
370 € iRobot
KAFE-MAKINA XN2125P4 ESSENZA
90 € NESPRESSO
Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. MCCko kooperatibistendako prezio bereziak.
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagutu gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.
ETXERAKO ZERBITZUA. ZAHARRA ERAMANGO DA
MERKEAGO TOPATUZ GERO DAGOEN ALDEA BUELTATUKO DA
GUSTURA GERATU EZEAN DIRUA BUELTATUKO DIZUGU
+dendak-EKO "DURANGO" TXARTELA ERABILGARRI

# Euskal kulturak Durangon du bilgunea egunotan

Euskal kulturaren erreferentzia nagusi bilakatuko da Durango abenduaren 4tik 8ra iraungo duen Euskal Liburu eta Disko Azokan. Landako Gunean egokituko dituzten standez gainera, aurkezpenak eta musika kontzertuak ere nonahi izango ditugu.

Gerediaga elkarteak antolatzen duen Euskal Liburu eta Disko Azoka salerosketarako gune bat baino askoz gehiago da. Euskal egileek euren lanak aurkezteko plaza izango dute Durangon, abenduaren 4tik 8ra.

Azoka hainbat nobedadegaz datorkigu aurten. Areto nagusiak kokapen berria dauka: erakustazoka barruan, sarrera nagusitik, Gerediaga elkartearen gunearen atzean dago. Egitarau nagusiko ekitaldiak antolatzeaz gainera, erakusleen aurkezpenetako lekua ere bada. Haur Literatur Aretoak ere kokapen berria du Elkartegian. Berbaro elkarteak antolatutako ekimenean 2-12 urte bitarteko gazteek parte hartu dezakete. Ahotseneak, berriz, karpa dauka Azokaren ondoan. Sortzaileen gunean egileek publikoagaz hartu-eman zuzena eta hurbilekoa izango dute.

Azoka zenbakitara ekarrita, guztira 138 erakuslek parte hartuko dute; horietatik 8 berriak dira. Gerediaga elkarteak jakitera eman duenez, Landako Gunean 285 stand jarriko dituzte; teknologia berrien atalekoak izango dira 19). Nobedadeei dagokienez, Azokako plazan 505 lan berri aurkeztuko dituzte (339 liburu, 85 disko, 30 aldizkari, 20 bideo, 9 CD-ROM eta bestelakoak 22 izango dira) .

Nobedadez beterik dator Gerediaga elkarteak antolatutako 45. Euskal Liburu eta Disko azoka


Txelu Angoitia. Gerediaga

Guztira, 138 erakuslek parte hartuko dute Azokan; horietatik zortzi berriak izango dira

**Kantujira**

Kantujira ireki eta parte-hartzailea antolatuko dute abenduaren 5ean, domekan, Durangoko Azokan. *Euskal Herria kantuz* ekimenaren bultzatzaileek Euskal Herri osoko kantu taldeei proposamena bidali diete. Durangoko Azokako plazan kantuzaleen elkarretaratzea 12:00etan izango dela jakitera eman dute antolatzaileek. Ondoren, Kantujiran irtengo dira Ezkurdi, Andra Mariko elizpea, Goienkale eta abar zeharkatuz, 14:00etarako Azokara bueltatzeko. Ondoren, bazkarian elkartuko dira Landako eskolan. Bazkalostean, 17:00etan, kantujira abiatuko dute ostera ere, 19:00etan azken kantu saioa Azokan antolatzeko.

Kantujira ireki eta parte-hartzailea antolatuko dute abenduaren 5ean




# Gazteen iritzia ezagutzera emateko bideo lehiaketa

Gerediaga elkarteak gazteei zuzendutako lehenengo bideo lehiaketara 20 lan aurkeztu dituzte. Durangaldea oinarri hartuta sortu dituzten bideo laburrak Gerediagako standean daude ikusgai.

Gazteak elkartera hurreratzeko asmoagaz, 13 eta 17 urte bitarteko gazteen artean bideo lehiaketa antolatu du Gerediagak. Gerediaga barruan aspalditik daukate elkartea bera ezagutzera emateko beharrizana eta hori zelan bideratu daitekeen zehazteko kezka. Jende berria erakartzea da asmoa, elkarteak berak martxan dituen proiektuetan norbere zaletasunak garatzeko aukera emanez eta proiektu berrietarako ekarpenak eginez. Gainera, Durangaldeari buruz gazteek zer iritzi daukaten jakiteko euren gustuko izan daitekeen bideo lehiaketa pizgarri moduan antolatu dute.

Gerediagaren asmoak harrera ezin hobea izan du. Lehiaketara 20 ikus-entzunezko aurkeztu dituzte. Durangaldea zelan bizi duten oinarri hartuta, gazteek 3 minutuko ikus-entzunezkoak osatu dituzte. Kontatu beharrekoa eta teknika libreak izan dira. Hizkuntzarik erabiltzekotan, euskaraz behar zuen. Gazteek lehiaketara aurkeztutako lanak Youtuben eta Euskaltuben ikusgai izango dira www.*durangokoazoka.com*-en. Gerediagaren standean ere ikusgai egongo dira. Sari banaketa abenduaren 8an egingo dute.

Gazteek lehiaketara aurkeztutako lanak Euskaltuben eta Youtuben daude


Odi-Bakarren arrakasta ikusita
Sukiak Errotaritxuena berria aurkezten du
Zu ere bizi zaitezke hemen
Eman ezazu izena
Aurki etxebizitza eta garajeen eraikuntza
www.sukia.com
www.solvia.es
946 46 20 41
%100ean finantzatutako erosketa:
BancSabadell
sukia
Zure etxean zaude.
Estás en tu casa.

# “Kurduek argi daukate hizkuntza dela kurdu egiten dituena”



Kurduekin hartu-emanetan hasi bezain laster euren herriak harrapatu egin zuen Urtzi Urrutikoetxea kazetaria. Domekan euskararen eta kurduerarен antzekotasunen gaineko mahai-ingurua 13:00etan moderatuko du. Euskal Herriko eta Kurdistango ordezkariak izango dira bertan. Herrialde gonbidatutik Ronayi Önen kurduera irakaslea eta Daban Shadala Irakeko Kurdistango ordezkaria etorriko dira.

**AEKko Edurne Brouard eta Bizkaiko Foru Aldundiko Josune Ariztondogaz egongo dira mahai-inguruan bi gonbidatu kurduak. Ezagutzen dituzu?**
Aspaldian berba asko egin dut biekin, baina ez ditut aurrez ezagutzen. Ikuspegi bi emango dizkigute: Ronayik lan handia egin du kurduerarен inguruan, eta Ipar Kurdistaneko egoera kontatuko du, Turkiako kurduena. Daban Irakeko kurduen alde behar handia egiten dabil, eta berak Hego Kurdistanen berri emango digu.

**Izan ere, Kurdistan banatuta dago Turkia, Iran, Irak eta Sirian. Estatu bakoitzean egoera desberdina izango da...**
Bai. Kurduak 40 milioi inguru dira; ez dago zehatz esaterik, etniak ez direlako erroldetan sartzen. Turkia iparraldean 20 milioi bizi dira, Sirian hiru milioi, Iraken bost baino gehiago, eta Iranen hamar milioi inguru. Bakoitzean oso egoera desberdina bizi dute. Iranen onarpen apur bat izan zuten, baina orain gobernua oso gogor dabil gerran, eta azkenaldian hainbat kurdu urkatu ditu. Iraken ere lehenago egoera gogorra izan zen. Orain, gerra ostean, Saddam Husseinen kontra jotzeko apustua ondo irten zaie; autonomia nahikoa lortu dute, eta kurduera ofiziala da Iraken. Turkiako egoera da hemen ezagunena; 1923tik oso errepublika zurruna dute bertan, inongo eskubiderik onartzen ez diena. Kurdistan hitza, kurduera... galarazita egon dira, nahiz eta Turkian lautik bat kurdoa izan.

> Turkian lautik bat kurdua da, baina kurduera debekatuta dago

**Zelakoa da estatuez gaindiko kurduen hartu-emana?**
Geroago eta estuagoa dela uste dut. Egia da hainbeste milioi izanda ez dutela premiarik izan elkartzeko, hizkuntza ez dagoelako hilzorian. Bakoitzak, zelanbait, bere estatuaren bueltan egin izan du behar. Turkian PKK gerrilaren inguruan daude alderdi politikoak. Iraken alderdi nagusi bi egon dira, eta gerrak eta ezinikusiak izan dituzte, baina orain euren arteko liskarrak gainditu dituztela ematen du.

**Kurduen nazio nortasunean kurduerak zenbaterainoko pisua dauka?**
Handia. Batez ere, ikusi dute Turkiak indar handiena kurduera zapaltzen egin duela. Duela hilabete inguru hainbat politikari kurdu epaitzen hasi ziren, eta epaitegietan kurdueraz berba egiten hasi zirenean “hizkuntza ezezagun baten” berba egin zutela apuntatu zuten. Argi daukate hizkuntza oinarrizkoa dela, kurduera dela batzen dituena eta kurdu egiten dituena. Horretan euskaldunon antza daukate.

> Kurduek hemengo egoera ezagutzen dutenean atoan ulertzen dute

**Zer antzekotasun gehiago dauzkagu?**
Nik uste dut nagusiena, eta horregatik harrapatu nauela herri honek, hizkuntzagaz duten borroka hori dela. Hizkuntza normalizatzeko eta garatzeko lan hori. Eurei azaltzen badiezue zer izan zen frankismoa, zer egin duen Frantziako errepublikak iparraldeko ume belaunaldi askok euren hizkuntzagatik lotsa sentitzeko, zelan sortu ziren ikastolak, *Egunkaria* kasua... sintonia bat igartzen dute atoan. Eurak gurera gerturatua elkartasuna ea sortzen den berton, Palestina edo Latinoamerikagaz dugun elkartasunaren antzekoa.

## Kurdistan eta bere kultura ezagutzeko ekitaldiak, domekan

Euskal Herria eta Kurdistan urrun dauden herriak badira ere, apur bat gertuago egongo dira domeka honetan. Hilaren 5ean, euskara eta kurduerarен gaineko mahai-inguruaz gainera, beste bi ekitaldi izango dira Durangoko Azokaren inguruetan. Arratsalde partean izango dira biak.

16:30ean Kurdistaneko abestiak eta dantzak ezagutaraziko dituzte Haur Literatura Aretoan. Zinar Ala eta Siwar Ala aktibista kurduek euren herrialdeko abesti laburrak eta dantzak erakutsiko dizkiete gaztetxoenei.

Azokako aretoan, 18:30ean, adierazpen askatasunaren gaineko *Nik ere badut hitza* mahai-ingurua hasiko da. Martxelo Otamendik moderatuko du ekitaldi hori, eta mahaiaren inguruan kazetaritzaren gainean egingo dute berba Eser Uyansiz *Azadiya Welat* egunkariko zuzendariak eta Martin Garitano kazetariak.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa

anboto
durangaldeko astekaria
Anboto komunikabideak Elkartea
2010eko abenduaren 3a - 9. urtea - 397 zk.
Laguntzailea: BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia
Eta honako Udal guztiak:
Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Garai, Iurreta, Izurtza, Mallabia, Mañaria, Otxandio, Zaldibar

**Zuzendaria**: Jone Guenetxea.
**Erredakzio burua:** Joseba Derteano.
**Administrazioa**: Itziar Belar eta Miren Abasolo.
**Publizitatea**: Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.
**Erredakzioa**: Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onaindia eta Amaia Ugarte
**Testu zuzentzailea**: Igor Elortza.
**Maketazioa**: Ainhoa Arizmendiarrieta.
**Argazkilariak**: Kepa Aginako eta Juanra de la Cruz.

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

aurretik doan unibertsitatea

Berrikuntza eta ikerkuntza oinarri dituen unibertsitate gaztea gara. Lan munduarekin zuzeneko eta etengabeko hartu emanean gaude, gizartearen beharrei erantzuteko prest.

*Bertako kulturan sustraiturik, etorkizuna eraikiz.*



www.mondragon.edu

# Imanol Urbieta musikari eta irakasle zarauztarra eskertzeko omen-saria

Liburu eta Disko Azokan eskuragai izango den *Aiton-amonekin kantari* diskoa argitaratu duen Imanol Urbieta musikari eta irakasleak jasoko du, abenduaren 4an, Gerediagak eskainiko dion 'Argizaiola' saria.

Durangoko Azokarako argitaratu duen *Aiton-amonekin kantari* diskoa izan liteke Imanol Urbietak bizi guztian irakaskuntza, musika eta euskara uztartuz egin duen lanaren erakusle. Hain zuzen ere, euskararen eta euskal kulturaren alde egin duen lana goraipatu eta eskertzeko helburuagaz, Gerediaga elkarteak eskaintzen duen Argizaiola omen-saria jasoko du musikari zarauztarrak bihar.

> Abenduaren 4an, 20:30ean, San Agustinen egingo dute ekitaldia



Abenduaren 4an, 20:30ean, Durangoko San Agustinen egingo duten 'Gauean argi' ekitaldian emango dio Gerediaga elkarteak saria Urbietari. Durangoko Atarte kultur elkarteak diseinatu du aurten Durangoko kulturguneko omenaldi ekitaldia, eta San Agustingo ekitaldikoaz gainera, "omenaldi digitala" ere jaso du Gerediagaren eta hainbat euskaltzaleren eskutik Imanol Urbietak: *imanolurbieta.blogspot.com* gunean, ikasle eta lagunen esker-tza jaso du. Umeei zuzenduriko eta herri kanta bilakatutako asko sortu du Urbietak, eta kanten bitartez irakasteko eredua ere garatu zuen: matematika edo geografia lako ikasgaietan eta, besteak beste, Joxean Ormazabal eta Anjel Lertxundi lankide zituela, musika hezkuntzarako bitarteko moduan erabiltzen hasi zen. Horrela sortu zuen hain estimatua den *Haur kantarien birlorak*.

**BIOGRAFIA**

Zarauzko Musika Plazan jaio zen **1934**an.
· Hamahiru urterekin Arantzazura joan zen ikastera. Hamabost-hamasei urte zituen bere lehenengo kantak sortu zituenean.
· Ez Dok Amairu mugimenduan parte hartu zuen **60ko hamarkadan**, eta Haur Kantarien Mugimendua sortu zuen Zarautzen.
· **1967an**, 'Haur Kantariak' grabatu zuen: umeentzako euskaraz argitaratutako lehenengo diskoa.
· **1970an**, Zarauzko Salbatore Mitxelena ikastolako irakasle izatera sartu zen.
· **1984an**, Musika esperimentaziorako Xirula Mirula zentroa ireki zuen Donostian.
· **2004an**, Zarauzko erretiratuekin Udaberri Abesbatza antolatu zuen, eta zuzendari lanetan dihardu.

**ARGITALPENAK**

· ***Nire ibilbide pedagogikoa***, liburua. Elkar eta Gipuzkoako Foru Aldundia (2007)
· ***Aiton-amonekin kantari***, diskoa. Elkar (2010)



# ART LEKU

zeharkalea 9, Durango
tel.: 94 466 81 41

www.artleku.com
artleku@gmail.com

Marrazketa, Akuarela, Oleoa
Arte Ederretarako prestaketa,
Kaligrafia Orientala

Adierazpen artistikoen bidez pertsona bakoitzaren
pertzepzioa eta interpretazioa existitzen diren leku bat...

Goizeko taldeak (11:00-13:00), arratsaldekoak (16:30-22:00) eta larunbatetan (10:30-13:30)











**Arteak burua, espititua eta espazioa iraultzen ditu...**

Gure adierazpen artistikoetan gure barne unibertsoa erakutsi behar dugula deritzot, niretzako margotzea nire arimaren kolorea eta forma agertzeko modu irekia dela, nire irudimenaren grabitaterik eza eta izakiaren barne hauskortasuna... eta une bakoitza kolore bat da... eta trazu bakoitzak mina eta poza adierazten ditu... Kandinsky margolari errusiar handiak zioen moduan: Sorkuntza artistikoa barne beharrizan bati dagokio.

- **Haur eta gazteentzako tailer berezia udan**
- **Lanak erakusteko gunea / Erretratuak, paisaiak,... egiten ditugu enkarguz / Koadroak salgai**








- **Art-Shop: opariak, kapritxoak,...**
- **Laister: grabatu eskolak (xilografia, litografia, kalkografia,...)**

Madrilgo Unibertsitate Complutensean Arte Ederretan lizentziatutako irakaslea, 0173450 zbn.

# "Jendarteak sexu harremanak nola ikusten dituen islatzen dute ipuinek"

Erotismoa kultura guztietan beti bizirik egon den gaia dela dio Joxemari Carrere ipuin-kontalariak. Azokaren inaugurazio ekitaldian 'Maitasunaren arbola' Afrikako antzinako istorioagaz ipuin-konferentzia emango du.

**Zertaz dihardu 'Maitasunaren arbola' istorioak?**
Adan eta Evaren beste bertsio bat dela esango nuke. Pertsonak nondik gatozen azaltzen du; nola izan zen lehenengo aldia. Harreman hori kontatzen du, eta istorio polita da.

**Erotikoa dela esan genezake? Zer da istorio erotiko bat?**
Zer da erotismoa? Bakoitzak ideia bat izango du; badirudi erotismoa dela sexuaren sublimazioa, pornografia, narraskerietan ibiltzea, gimnasia hutsa... ez dakit, baina azken finean, ni heltzen naizen konklusioa da bost axola zaidala zer den erotismoa, eta garrantzitsuena dela nolako harremanak egiten diren. Eta hor dago jolasa eta imajinazioa; burura zer irudi etortzen zaigun, zer desio pizten diren guregan. Pertsona bakoitzak bere erara biziko du, eta kultura bakoitzak ere bere eredua izango du grina pizte horretan.

**Hainbat lekutako kulturetako istorioak batzen ibili zara. Zer topatu duzu?**
Nik topatu ditudan gehienak indigenen kulturetan topatu ditut. Amazonian, Afrikan, inuiten kulturan... Hemen ere badaude, baina askoz leunagoak, finagoak dira; gauza narratsagoak eta ebidenteak topatzea ez da hain erraza. Hemen ez duzu topatuko Amazonian bezala 200 metroko zakila daukan tipo baten istorioa...

> "Ipuin kontalaritzan eta sexualitatean imajinazioa eta jolasa behar ditugu"

**Gaia mozorrotu egin da batzuetan?**
Azken finean, sexualitatearen kontua pertsona guztien kezka da; pertsonen arteko harremanak kultura guztietako tradizioan kontatu izan dira. Askotan erreprimitua izan da. Interesgarria da niretzat ikustea jendarteak zer garrantzia eman dion, erlijioak zer garrantzia eman dion... Erreprimitu egin denean, jendea kontrolatzeko ahalegina egon da... Hori guzti hori ipuinetan islatuta dago. Beste kulturen istorioetan gure kulturarekin bat ez datorren eskema topatu genezake, baina, aldi berean, zerikusia daukana. Interesgarria da hori ikustea, elikatzea bezala, bizitzaren parte garrantzitsua delako sexualitatea.

**Zer esan zenezake euskal tradizioari buruz?**
Gurean ez da hain erraza izan istorio horiek intimitatetik eremu publikora pasatzea. Mirandek-eta Igela aldizkarian bildutakoak badauzkagu, baina hor dauzkagu tabuak, intimitatea... eta ez da hain erraza izan horiek lantzea eta, zergatik ez, horrelako gauzekin barre egitea.

**Sortzaileek zer bilatzen duzue istorio erotikoak kontatzerakoan?**
Nire kasuan, gogoeta egin araztea nahi dut. Sexu harremanak pertsonen arteko harremanak dira azken finean, eta hor tabuak, gaizkiulertuak... denetik dago. Istorio batzuk entzutean sorpresa hartu dut, eta sentsazio horiek transmititu nahi izaten ditut. Eta jolastea. Azken finean, sexu harremanak jolasa dira. Jolastera zoazenean ondo pasatzera zoaz. Ipuin kontalaritzan ere jolas hori dago; jolasa eta imajinazioa behar dira. Sexu harremanetan jolasa behar dugu, eta imajinazioa ere bai. Azken finean, ez dago imajinazio gabeko jolasik.



## Sarrera ekitaldia, zapatuan 12:00etan

Joxemari Carrerek zapatu eguerdian emango du *Maitasunaren arbola* ipuin-konferentzia. Izen horretako Afrikako antzinako istorio hori eta beste ipuin batzuk kontatuko ditu, eta erotismoak eta giza harremanak ipuinetan izan duten lekuari buruz egingo du berba Carrerek.

Hainbat kulturatako ipuin tradizioa ikertu du Carrerek, eta denetan aurkitu du zer edo zer erotikoa. Kultura guztien tradizioan dauden istorioak direla nabarmenduko du ipuin-kontalariak.

## Tailer erotikoa, astelehenean 19:00etan

Jostailu erotikoen jatorria, ezaugarriak eta erabilera ezagutzeko aukera eskainiko dute aurtengo Durangoko Azokan. Erotic Toys jostailu dendako Manex Rekaldek gidatuko du tailer erotikoa, astelehenean, hilaren 6an, 19:00etan.

Aurreratu dutenez, tailer erotikoan umorez jardungo du Manex Rekaldek. Publikoaren laguntza izango du horretarako. Jostailuen gainean berba egiteaz gainera, sexualitatearen alderdi onuragarrienak edukiko ditu berbagai.

## Sortzaileak erotismoaz berba egiten, hilaren 7an

Hainbat adierazpen artistikotako sortzaileak batuko dira martitzenean, 18:30ean, erotismoaren gaineko mahai-inguruan. Bakoitzak bere alorrean izan duen esperientzia kontatuko du, eta euskal kultura erotikoaz berba egin daitekeen hausnartuko dute.

Paddy Rekaldek moderatuko du ekitaldia eta mahaiaren inguruan bost sortzaile jesarriko dira: Ivan del Campo zine zuzendaria, Kattalin Miner *queer* idazlea, Ines Osinaga Gose taldeko abeslaria, Edorta Jimenez idazlea eta Jon Arano komikilaria.







ALKIMAX
Alquilamos soluciones
10. urteurrenean
ESKERRIK ASKO
gure bezero guztiei
Eitua industrigunea, 71C • 48240 BERRIZ (Bizkaia) • 94 682 45 50 • alkimax@alkimax.com
LORAZAINTZA
Motozerra
Lorezaintzarako traktorea
Zulagailua
Gasolinazko motordun aitzurra
ERAIKUNTZA
Plataforma jasogailua
Minidumperra
4 x 4 dumperra birakaria eta bere kabuz kargatzekoa
Mini zamagailua
Mini hondeagailua 1.800kg
JASOGAILUAK
Maneiagailua
Beso artikulatuak
Artazia
Eskurga
www. alkimax.com
Applus


Dima Golf
PITCH & PUTT
18 zulo
par 3
dima golf zelaia
Pitch & Putt zentrorik onena
Zuretzako diseinatutako zelaia
Guztiontzako golfa
Inguru paregabea
ECO-espazioa
Sagardotegia
Etxean bezala
Durangotik 15 min.-ra eta
Otxandiotik 3 km.-ra
PRAKTIKETAKO KANTXAK ETA
PITCH & PUTT ESKOLA
Dima Golf
PITCH & PUTT
TORNEOAK
Abenduak 6: Areatza Bainuetxe Hotelak babestuta
Abenduak 19: Santo Tomas torneoa, txuletadarekin.
Opari zaparrada batekin Olentzero aurreratzen duen
Buen golpe.com-ek babestuta
Urtarrilak 8: Errege Torneoa, 2011ko lehena
DIMA GOLF CENTER Km.38 Dima - Otxandio Errepidea (Dima gana)
www.dimagolf.com
info@dimagolf.com
Tlf. 94 404 61 47

# Joseba Jaka oroitzeko eta euskara bultzatzeko lasterketa hilaren 8an

Abenduaren 8an, Euskal Liburu eta Disko Azokako azken egunean, urtetik urtera korrikalari gehiagok parte hartzen duen Joseba Jakaren Oroimenezko IX. Lasterketa korrituko dute Durangoko kaleetan zehar



Joseba Jakaren oroimenez eta euskara eta kirola uztartu guran, *Berria* egunkariak eta Euskarria kirol elkarteak bederatzigarren biderrez antolatuko dute zazpi kilometroko herri lasterketa Durangoko kaleetan zehar. 45. Euskal Disko eta Liburu Azokako azkeneko egunean, eguazten goizean gauzatuko dute Bidezabal atletismo taldea eta Iurreta Txirrindulari Elkartea laguntzaile dituen ekimena.

Urtero legez, Ezkurdin batuko dira parte-hartzaile guztiak. Nagusien lasterketa 11:45ean hasiko dute, eta gaztetxoena 10:30ean. Gaztetxoak lau kategoriatan banatuko dituzte adinaren arabera. Benjaminentzako 600 metroko lasterketa prestatu dute; kimuak 1.200 metroan ibiliko dira arineketan. Ondoren datozen kategoriak biak, haurrena eta kadeteena, bateratu egin dituzte. Kategoria bateratu horretan, adin tarte horretako neskentzako 1.500 metroko ibilbidea prestatu dute, eta adin bereko mutilentzako kilometro bikoa.

> Nagusiak 11:45ean abiatuko dira, eta gaztetxoak 10:30etik aurrera

Nagusiek, ohi duten moduan, zazpi kilometroko ibilbideari aurre egingo diote. Bi eta bost kilometroko zirkuituari itzuli bana emanda helmugaratuko dira korrikalariak Ezkurdin. Besteak beste, Galtzareta, Askatasun etorbidea, Zumalakarregi erta Zabalarra kaleetatik ibiliko dira.

Iaz Cristina Petite abadiñarrak erakustaldi handia eman zuen emakumeetan, eta berak irabazi zuen lasterketa; gizonetan, berriz, Alberto Barberena heldu zen lehenengo.

> Plateruena kafe antzokian egingo dute sari banaketa, 13:00etan

Aurten, nobedade moduan, lasterketan parte hartzen duen arineketalari bakoitzari kamiseta teknikoa erregalatuko diote. Ondoren, lasterketa amaitu eta lasterrera, 13:00ak inguruan, sari banaketa egingo dute Plateruena kafe antzokian. Hainbat jatetxetan bazkaltzeko txartelak ere banatuko dituzte.

Lasterketarako laguntza teknikoa ematen arituko dira Iurreta Txirrindulari Elkarteko kideak. Segurtasuna bermatzeko bidegurutzeak zainduko dituzte. Justo Alberdi txirrindulari elkarteko kidearen esanetan, "kirola eta euskararen aldeko ekimena denez, hasieratik laguntzaile izan gaitu lasterketak. Azoka, Jaka bera, euskara eta kirola. Osagai horiek dituen lapikoa zaintzen gogo onez ibiliko gara".

> Parte-hartzaile bakoitzari kamiseta tekniko bana erregalatuko diete

Gainera, Alberdik gogoratu duenez, "Zabalarra inguruan Iurretako Santa Apolonian ere sartuko da lasterketa".




## Azoka sortzen eragin zuzena izan zuen Jakak

Joseba Jakaren oroimenezko lasterketa Euskal Liburu eta Disko Azokan egitea ez da kasualitatea. Kike Zurutuza *Berria* egunkariko marketing arduradunak ekimenaren aurkezpen ekitaldian gogoratu duenez, "Azokaren sorreran figura inportantea izan zen". Horrez gainera, "Egunkaria sortzerako orduan eragin zuzena izan zuen, eta Elkar argitaletxeko arduradunetako bat ere bazen".

Beraz, euskaraz eta euskalgintzagaz duen lotura argi dago. Baina, horrez gainera, kirola praktikatu zalea zen eta "herri-lasterketetan parte hartzea gustatzen zitzaion. Beraz, zer hoberik Joseba Jakaren figura gogoratzeko euskara eta kirola uztartzen dituen herri-lasterketa bat baino".

Gainera, Zurutuzaren esanetan, "datuek erakusten dutenez, euskarak baino prestigio gehiago duen zerbait baldin badago, hori kirola da". Beraz, egokia iruditu zitzaien, Ierro estrategiko moduan, elementu biak batuko dituzten ekimenak antolatzea. Izan ere, horrelako herri-lasterketak korrikalarien arteko lehiakortasunaz gainera, "jendearen arteko hartu-emanak sustatzeko ere baliagarriak dira".

## DATUAK

**Eguna**
- Abenduak 8. Ezkurdin hasita

**Ordua**
- Nagusiak: 11:45
- Gazteak: 10:30

**Kategoriak**
- Nagusiak (zazpi kilometro)
- Gaztetxoak:
- Benjaminak
- Kimuak
- Haurrak eta kadeteak (neska eta mutil)

**Sari banaketa**
- 13:00etan, Plateruena kafe antzokian

# Umeekin eta gazteekin, biharko irakurleak lantzen dihardu Berbarok



Umeak eta gazteak literaturara hurreratu guran ekitaldi ugari antolatuko dituzte Azokako Haur Literatura Aretoan. Berbaro elkarteak aurkezpenak, eskulanak, ipuin kontalariak, antzerki saioak eta beste hainbat proposamen egingo dizkie txikitxoenei. Liburuak irakurtzeaz gainera, egileekin elkartzeko txokoa ere izango dute umeek Azokan.

Azokako egunetan ume eta gazteentzako egitarau zabala antolatu dute Haur Literatura Aretoan. Kokapen berria du aurten aretoak, Azoka ondoko Elkartegian. Zabalik izango da abenduaren 5etik 8ra, Azokako ordutegi beragaz. Gune horren helburua 2-12 urte bitarteko umeak literaturara modu aktiboan gerturatzea da. Umeei euskaraz irakurtzeko gogoa piztea da asmoa, ipuinen istorioetan barneratuz, musikaz jolas egiteko aukera emanez. Berbaro euskara elkarteak 21 urtez dihardu Haur Literatura Aretoa kudeatzen. San Agustin kulturgunean izan zuen lehenengo egoitza, eta ondoren Liburu eta Disko Azokara zabaldu zuten.

Aretoa abenduaren 5ean 11:00etan jarriko dute martxan. Ereinek *Neskatilak* sailaren aurkezpena egingo du, idazle eta marrazkilariekin; liburuak sinatuko dituzte. Eskulanetan parte hartzen duten umeek eta gazteek liburu erraldoia osatuko dute.

Azokako herrialde gonbidatua kurduak direnez, Zinar Ala eta bere ilobak 18:30ean Kurdistango abesti eta dantza herrikoiak eskainiko dituzte.

> Zinar Ala eta bere iloba Kurdistango abesti eta dantza herrikoiekin datoz

Xabier Mendiguren eta Cristina Fernándezek *Super Ondo* liburua aurkeztuko dute 18:00etan umeen txokoan. Liburuak Maddiren abenturak kontatzen ditu. Aita eta amagaz supermerkatura joaten da, eta gurasoak eztabaidan hasten dira. Neskatilak, garbigailu batean sartu ondoren, gaua supermerkatuan ematen du denerik duela eskura.

Lur Korta ipuin-kontalariak abenduaren 6an bisitatuko du Haur Literatura Aretoa. *Aurorita beti polita* kontakizunean, bere maleta bereziagaz bidaiatzen duen Auroritaren istorioak kontatuko ditu.

Xalto pailazoak 17:00etan *Show berria prestatzen* ikuskizuna eskainiko du bertaratzen direnentzat. Miren Agur Meabek eta Eider Eibarrek sortutako *Mila Magnolia lore* liburua aurkeztuko dute ondoren, 18:00etan. Kontakizunean, ospitalean dagoen ume batek gelako leihotik magnolia eder bat ikusten du. Narratzailearen testuekin batera, tartekatuta, osagarri eta edergarri izanik aldi berean, olerki, aipu, hausnarketa bitxi, kaligrama eta hitz joko ugari tartekatzen da narrazio hunkigarri eta sentibera honetan.

Inguma taldeak *Cupertina eta Bertilde* antzezlana eskainiko du; 12:30ean izango da, Haur Literatura Aretoan.

Txotxongilo taldeak, berriz, abenduaren 8an *Erreka Mari Euskal Herriko lamia* ezagunaren istorioa kontatuko du, 17:00etan.

## AURKEZPENAK

### SUPER ONDO




- Egilea: Xabier Mendiguren Elizegi
- Ilustrazioak: Cristina Fernández:

Gero-Mensajero argitaletxearen eskutik

AURKEZPENA:
Abenduak 5, 18:00

### MILA MAGNOLIA LORE




- Egilea: Miren Agur Meabe
- Ilustratzailea: Eider Eibar

Gero-Mensajero argitaletxearen eskutik

AURKEZPENA:
Abenduak 6, 18:00




## Abenduaren 5ean

| | |
|---|---|
| 11:00-12:30 | Haur Literatura Aretoaren aurkezpena, irekiera eta ekitaldi berezia. |
| 12:30-13:00 | Neskatilak sailaren aurkezpena idazle eta marrazkilariekin eta liburuen sinadura (Erein). |
| 13:00-13:30 | Eskulana: Liburu erraldoia osatu. |
| 13:30-14:00 | Neskatilak sailaren aurkezpena idazle eta marrazkilariekin eta liburuen sinadura (Erein). |
| 14:00-16:30 | Irakurketa librea. |
| 16:30-18:00 | Zinar Ala eta bere iloba: Kurdistango abesti eta dantza herrikoiak. |
| 18:00-18:30 | Xabier Mendiguren eta Cristina fernandez: 'Super ondo' liburuaren aurkezpena (Gero-Mensajero) |
| 18:30-19:30 | Eskulana: txapak. |
| 19:30-19:45 | Irakurketa librea. |

## Abenduaren 6an

| | |
|---|---|
| 10:30-11:30 | Irakurketa librea |
| 11:30-12:30 | Eskulana: Orri markatzaileak. |
| 12:30-13:30 | Lur Korta: 'Aurorita beti polita'. |
| 13:30-15:30 | Irakurketa librea. |
| 15:30-17:00 | Eskulana: Papiroflexia. |
| 17:00-18:00 | Xalto pailazoa: 'Show berria prestzen'. |
| 18:00-18:30 | Miren Agur Meabe eta Eider Eibar: 'Mila magnolia lore' liburuaren aurkezpena (Gero-Mensajero). |
| 18:30-19:30 | Ginkana lehiaketa . |
| 19:00-19:45 | Irakurketa librea. |

## Abenduaren 7an

| | |
|---|---|
| 10:30-12:30 | Irakurketa librea. |
| 12:30-13:30 | Eskulana: Pertsonai mobila. |
| 13:30-15:30 | Inguma taldea: 'Curpetina eta Bertilde'. |
| 15:30-16:45 | Irakurketa librea. |
| 17:00-18:00 | Bideo emanaldia |
| 18:00-19:00 | 'Mamuak eta beste auzokide batzuk'. Zurrumurru antzerki taldea. |
| 19:00-19:45 | Eskulana: Liburu erraldoia osatu. |
| 19:45 | Irakurketa librea |

## Abenduaren 8an

| | |
|---|---|
| 10:30-12:30 | Irakurketa librea. |
| 12:30-13:30 | Eskulana: Orri markatzaileak. |
| 13:30-15:30 | Karaokea. |
| 15:30-17:00 | Irakurketa librea. |
| 17:00-18:00 | Eskulana: Arkatzak gordetzeko potea. |
| 18:00-19:00 | Txotxongilo taldea: 'Erreka Mari'. |
| 19:00-19:45 | Bideo emanaldia |
| 19:45 | Irakurketa librea |



# Sortzaileen lan berriak zuzenean ezagutzeko aukera Ahotsenean

Hirugarren aldia izango du aurtengoa sortzaileen eta zaleen arteko elkargune izan gura duen Ahotseneak; aurkezpen, kantaldi eta solasaldiekin, 40 ekitaldi inguru izango dira abenduaren 5etik 8ra bitartean




Durangoko Liburu eta Disko Azokan gune ia berria da Ahotsenea, baina urtez urte sendotzen doan egitasmoa da. Gero eta ekitaldi gehiago antolatu dituzte edizioak pasatu ahala, eta Azokara hurreratzen direnentzat ere gero eta erreferentzia ikusgarriagoa da. Aukera ona da produktuak erosi aurretik zuzenean ikusi edo ezagutzeko. Gainera, sortzaileen eta zaleen arteko hartu-emana bultzatzen duela esan daiteke. Ekimen independente, profesional eta autonomoa da Ahotsenea.

## Bi funtzio

Azoka alboko karpan, bi ataletan banatu ohi dute gune hau: alde batetik, aurkezpenak eta solasaldiak egiteko eremua –batez ere, idazleei begira, baina baita musikarientzat ere–; bestetik, emanaldiak zuzenean eskaintzeko eremua. Horretarako, egun osoan martxan izango dituzte talde eta material teknikoak, eta tarte laburraren barruan emanaldi batetik bestera pasatu gaitezke. Normalean, kontzertuek edo ikuskizunek ez dute ordu erdirik gora irauten. Azokara bertaratzen direnentzako dosi labur eta freskagarriak eskaintzen ditu sortzaileen guneak, horrenbestez.

Domekan, hilaren 5ean, hasiko dute egitaraua, eta eguaztenera arte makina bat idazle eta abeslarik hartuko dute Ahotseneako lekukoa; goizeko 10:30etik hasita iluntzera arte, etenik barik garatuko da programa. 2010eko produkzioak aurkeztuko dituzte Ahotseneako parte-hartzaileek.

Besteak beste, Bide Ertzean, Seiren eta Jon Enbeitaren kantaldiak; Jon Benito, Irati Jimenez eta Jon Arretxeren liburu aurkezpenak; Arantxa Urretabizkaia eta Asier Serranoren errezitaldiak; Ur Apalategi eta Patxi Zubizarretaren irakurraldiak... musikazaleek eta literaturazaleek badaukate non aukeratu.

> Sortzaile eta zaleen arteko hartu-emana bultzatzen du Ahotseneak

> Egun osoan martxan izango dituzte talde eta material teknikoak

> Dosi labur eta freskagarriak eskaintzen ditu sortzaileen guneak

> 10:30etik iluntzera arte, etenik barik garatuko da egitaraua

## Etxekoen aurkezpenak

Durangaldeko sortzaile batzuek ere egingo dituzte euren agerpenak Ahotseneako karpan. Mongok abenduaren 5ean, 17:00etan, aurkeztuko du kantaldian bere disko berria: *Dirua, ze gezurra* izenekoa. Xabier Amuriza ere ez da faltako aurtengo Azokan, eta bere azken ekoizpenaz hilaren 7an egingo du berba, eguerdiko 14:00etan. Azken egunean, abenduaren 8an, Berrizko Zain taldea igoko da Ahotseneako eskenatokira, *XXI. mendeko piratak* diskoko abestiak zuzenean jotzeko. 12:30ean dute talde honen zaleek hitzordua. Joseba Sarrionandiaren *Moroak gara behelaino artean?* liburuak ere izango du lekua hilaren 8ko egitarauan; eguerdiko 15:00etan izango da aurkezpena.




goizeko 08:00etatik
gabeko 21:00etara
zabalik
clínicadental hortzklinika
b. unamunzaga e. etxebarria
odontologia orokorra eta espezialitateak
muruetatorre bloque 2 - C bajo 48200 durango tel. 94 681 99 51

Hemen agertu gura badozu
deitu!
94 621 79 02

# EUSKAL DENDA >




## Emakumea, 'ezberdintasuna' eta patchwork irudia ardatz Euskal Dendan

Abenduaren 3tik 8ra Durangoko merkatu plazan zabalduko duten Euskal Dendak 15. aldia izango du aurten. Arbaso Euskal Herriko artisauen elkarteak antolatuta, azoka artisautzaren erakuslehio zabal eta distiratsu bihurtuko da beste behin.

Merkatu plazan kokatuko dituzten 66 standetako produktuak Juan Unzuetaren saskirik handienean ere ez lirateke sartuko. Unzueta Iazko Artetsu sariak ibilbide luze eta oparoa badu, beste hainbeste esan daiteke aurtengoari buruz ere: Teresa Ibarra. Nafarrak berrogei urtetik gora daramatza bere artista sena burdinan txertatzen.

Ibarra emakumezko artisauen erakusgarri garbia ere bada. Aurten hiru kartelek islatuko dute azoka, eta horietako batek emakume artisauaren figura goraipatzen du. Patchwork erakusketa batek ere gai berbera landuko du, beste kartel batek lagunduta.

Hirugarren kartelak 'ezberdintasuna' berbaren konnotazio ezkorrak alboratuz, bestelakoa denaren baloreak eta bakantasuna azpimarratzea du helburu.



# Artisautzaren unibertsoa Durangon kontzentratuta

Euskal Herriko artisau azoken erreferente nagusia da Euskal Denda. Askotariko produktuak batzeaz gainera, artisautza ezagutzera ematen ahalegintzen da. Urtero dituzte ekimen berriak eta berritzaileak. Artisautzaren unibertsoa batzen saiatzen dira.

Merkatu plazak izenari izana gehituko dio gaurtik abenduaren 8ra arteko sei egunetan. 66 standek eta hainbat erakustetak zein ekitaldik artisautza salerosketa sustatu eta herritarrengana hurreratuko dute.

Gaur arratsaldean irekiko dute azoka, batez ere, ikastetxeetako gazteei begira, eurak direlako etorkizunean zura landu, larrua josi, burdina moldatu edo beste barik diru-zorroa poltsikotik atera eta produkturen bat erosiko dutenak.

Aurten iaz baino sei stand gehiago atonduko dituzte, kaleetan eta luzetara bananduta: 66. Ohi duten moduan gehienak artisautzaren gainekoak izango dira, baina elikagaiek ere hartuko dute euren txokoa. Bizkaitik eta Gipuzkoatik iaz baino bost eta sei artisau gehiago etorriko dira, hurrenez hurren. Araban, ordea, bostetik batera jaitsi da kopurua.

> Guztira, 66 stand prestatuko dituzte; zortzi elikagaien gainekoak dira

Aurtengo azokak hiru ideia nabarmenduko ditu, beste hainbeste kartelen bidez: emakumea, 'ezberdintasuna' eta patchworka. Lehenengo biek badute harremana. Emakume artisauaren figura goraipatzen du kartel batek eta patchwork teknikaren bidez osatuko duten komiki antzekoak gai horixe landuko du. Bestalde, 'ezberdina' dena nabarmendu gura dute hirugarren kartelagaz, artisautzaren berezko ezaugarria dela uste dutelako.

Halleko erakusketa emakume artisauen gainekoa izango da aurten. Bederatzi artisauren jarduna bertatik bertara ikusteko aukera eskainiko dute. Horietako zortzik zura lantzen dute, eta beste bat artearen zaharberritze lanen gainekoa da.

Artisautza tradizioa ezagutzera emateko ahaleginean, orain urte batzuk baliabide teknologiko berrien aldeko apustua egin zuten, eta ez dute bide horretatik aldentzeko asmorik. Horregatik, aurten ere Euskal Dendaren gaineko informazioa bermatu eta iritzi trukea ahalbidetuko dute, facebook eta blog bitartez.

Artisautza azokako urteroko berezitasunetako bat standik onenaren lehiaketa izaten da. Aurten ere ordenagailuz gehien gustatu zaien standaren aldeko botoa emateko aukera izango dute azoka bisitatu eta produkturen bat erosten dutenek. Iaz Anne Kathrin-en Zegamako Javones Naturales *Garbi* postuak jaso zituen botorik gehien. Arbaso elkarteak ere aukeratu zuen gehien gustatu zitzaion bat: Durangoko Eneko Unzaluren bitxien gaineko standa, hain zuzen ere. Beraz, postu bi horiek aurten gonbidatu moduan etorri dira, horixe da-eta lehiaketaren saria.

> Iaz Anne Kathrin eta Eneko Unzaluren standak izan ziren erakargarrienak

Bitxikeria moduan, aipatu beharrekoa da aurten 'Euskal Denda' izena erregistratzea erabaki duela Arbaso elkarteak. Horrela, hemendik aurrera izendapen hori Durangoko Artisautza Azokak bakarrik izango du.

***Euskal Dendaren informazioa:***
**euskaldenda.blogspot.com**
**www.euskaldenda.info**

**DATUAK**
Stand kopurua........ **66**
Artisautzakoak........ **58**
Elikadurakoak.......... **8**

**NONDIK**
Bizkaitik.................. **34**
- Durangaldetik..... **7**
Nafarroatik............. **8**
Gipuzkoatik............ **16**
Iparraldetik............ **7**
Arabatik.................. **1**

**ORDUTEGIA**
**(abenduak 4-8)**
Egunero:
**11:00-14:30 / 16:30-21:00**
Barikuan: **17:30-19:00**
Domekan: **20:00ak arte**












# “Patchworkak sormen gaitasuna ateratzeko aukera ematen du”



Koldo Garcia lezoarrak hainbat emakumek ehuna erabiliz sortu duten erakusketaren berri eman digu; nobedadea den arren, ez da bera Durangora datorren estreinakoa.

**Zer ikusi ahal izango da zuen erakusketan?**
Patchwork teknikan eta orokorrean ehungintza artistikoan oinarritutakoa izango da. Horren adibide txiki bat emango dugu. Hiru zatitan banatuko dugu: lehenengoa, Oreretako Xenpelar Patchwork tailerreko 30 ikaslek osatutako ipuin kolektiboa da, bakoitzak bineta propioa sortuz; bigarrena nik egindako lan pertsonalek osatuko dute, eta hirugarrena Patricia Rapsonena izango da. Azken honek estilo oso berezia du lan egiteko; sormen handia du, eta metodo tradizionalagaz alderatuz gauza berritzaileak egiten ditu, nik uste.

> AEBetatik datorren moda da; baina, berez, sorrera birziklapenean du

**Nondik dator ekimen hau egiteko ideia?**
Emakumeek aspaldtik egindako lanak –jostea, adibidez– urteetan ez dira kontsideratu lan profesional, eta horregatik, gizarte mailan ez ohi dira artisau-lan moduan hartzen. Kultura femenino hori, lan eta forma konkretuekin, galtzen dabilela uste dugu, eta penagarria iruditzen zaigu. Ideia honi bueltak emanez sortu zen Artisautza Azokarako egitasmoa.

**Kontaiguzu zein den Patchworkaren ibilbidea.**
AEBetatik datorren moda bat da, moda guztiak bezala. Baina, berez, bere sorrera birziklapenean dago; eremu txiroetan izara edo mantak egiteko askotariko trapuak jostean sortu zen. Historian zehar egindako lana da: faraoiei ere, momifikatu ondoren, azken kapa bat metodo honekin ipintzen zieten. Izan ere, gune bat isolatzen laguntzen du teknika honek.

**Lanaren emaitza, erabilgarria ala artistikoa da?**
Patchworkak, sorkuntzarako aukera eskaintzen du; printzipioz lanari izaera praktiko edo erabilgarria ez zaio aplikatzen, baina artisauaak barruan daukan sorkuntza gaitasuna kalera ateratzeko aukera ematen du.

**Ezaguna al da metodo hau gure artean?**
Hemen inguruan, Errioxan garatu izan da batez ere; *almazuela* berba darabilte han teknika izendatzeko. Euskal Herrian bilatzen ibili izan naiz, eta Artetako museoan aurkitu dut XIX. mendeko piezaren bat, baina ez askoz gehiago. Antzeko zeozer nordikoen estilo ohe-estalkiekin egin izan da, barruan artilea sartuta. Aipatu gura nuke, baita ere, ehun mota batzuk desagertu egin direla denbora igaro ahala, apurtzeko errazak eta garbitzeko gaitzagoak zirelako. Tradizioagaz lotutako gaia da, baina orain, geroago eta gehiago lantzen ari dena.

**Beraz, zuen erakusketa nobedadetzat hartu daiteke.**
Bai. Ni egon izan naiz aurreko urteetan ere teknika hau Durangon erakusten, baina lan txikiagoak ziren, postuak berak ere mugatu egiten duelako. Kasu honetan, artelan handiagoak eta garatuagoak ikusi ahal izango dira; horregatik izango da nobedadea aurten, nire iritziz.

> Artelan handiagoak eta garatuagoak ikusi ahal izango dira aurten

**Noiztik zabiltza mugimendu honetan?**
Hamar urte daroadaz honetan, 2000. urtean hasi nintzen-eta teknika lantzen. 2003an, Errenteriako Xenpelar tailerrean klaseak ematen hasi nintzen, eta hor dihardut oraindik. Hainbat gauza eta teknika berri agertzen dabil mugimendu honetan, eta, ondorioz, oraindik ere guztiz ezagutzen ez dugun eremu bat da.

**Patchworka da, beraz, zure lan-eremua.**
Bai. Horretan dihardut irakasle lanetan, eta lantzean behin azoka eta erakusketetara joaten naiz. Ez naiz beste arte adierazpen batean ere murgildu; Patchworkeko artisaua naiz.

## Ezberdintasuna ezaugarri positiboa izan daitekeelako




“Ezberdina dena arrarotzat hartzen dugu sarri, eta guk hori ez dela horrela aldarrikatu gura dugu”, dio Bernat Vidal Arbasoko lehendakariak. Ezberdintasuna ezaugarri positibo moduan erakutsi gura dute. Horregatik irudikatu dituzte kartelean hainbat koloretako paparrekoak: denok berdinak, baina aldi berean, ezberdinak garela gogoratzeko. Gainera, artisautzak berezko duen ezaugarria dela dio Vidalek, artisauen eskuetatik sekula ez direlako lan berdin bi irteten.

## Emakumezko artisauak gogoratu eta omendu guran

Emakumearen eta artisautzaren arteko hartu-emana islatu guran, zur zati batetik irteten den emakumezko irudi fin eta landua erakusten du bigarren kartelak. Aurten hiru kartel sortu eta denak maila berean ipintzea erabaki dute: “Emakumeak berak eta emakumeak artisautzagaz izan duen loturak kartel batean horixe bakarrik jasoa izateko adina garrantzia duela uste dugu”. Halleko erakusketak ere bederatzi emakume artisauren lana erakutsiko du aurten.




## Patchwork teknika bidezko lanak ezagutzeko aukera




Hirugarren kartelak patchwork teknika bidezko lanak ezagutzeko aukera eskainiko du. Erakusketa hiru gunetan banatuko dute. Batetik, Errenteriako patchwork tailerreko 30 ikaslek osatutako lana erakutsiko dute. Komiki baten antzera, bakoitzak irudi bat osatu du eta denak batutakoan ezagutu daiteke istorioa. Bestetik, Koldo Garcia eta Patricia Rapsonen patchwork lanak egongo dira ikusgai.









# "Burdinolak artearekiko nire kezkak eta ideiak islatzeko balio izan dit"

Teresa Ibarra (Elgorriaga, Nafarroa, 77 urte) 30 urtegaz hasi zen burdina artelan bihurtzen. Gaur bizi osoko ibilbideari dagokion Artetsu saria jasoko du.



**Aurten zuk jasoko duzu bizi osoko ibilbideari dagokion Artetsu saria.**
Ez nuen itxaroten, eta lartxo ere iruditzen zait. Askok merezi dute nik beste eta nik baino gehiago. Hala ere, zer esanik ez, oso pozik nago.

**Nondik datorkizu burdina lantzeko afizioa?**
Nire senarrak itsasontzien motorren inguruko tailerra zeukan. Inguru hauetan emakumeak sarritan laguntzen zion senarrari bere zereginetan, eta ni ere horretan hasi nintzen. 30 bat urte neuzkan eta ordura arte sekula mailukada bat eman bakoa nintzen.

**Ondoren, burdina lantzeko zeure tailerra sortu zenuen.**
Senarra artista zen bere zereginean, baina ez zen hortik aldentzen, ez zuen haragoko imajinaziorik landu. Nik, aldiz, arteagaz neure kezkak eta pentsamenduak neuzkan. Buruan bueltaka nituen ideiak islatzeko modua izan zen. Bestela, ez nuen horretarako aukerarik izango. Beti izan naiz behatzailea, eta esperimentatzea gustatzen zait.

**Autodidakta izan zara?**
Bai. Nire anaia Migeltxo Frantzian bizi zen, eta handik artisautzari eta arteari buruz bidaltzen zizkidan aldizkariek asko lagundu zidaten. Nola esan; ordura arte horrelako ideiekin neu bakarrik nenbilela uste nuen, eta ikuspegia zabaltzeak neure ideietan finkatu ninduen.

**Frank Gehryren lanek ere eragin dizute.**
Gehryren lanek, irudiek eta zirriborroek ere neure ideiak berresten lagundu zidaten. Artista handi horren adierazteko modua neure barruan sentitu eta lotsa alboratzen lagundu zidaten.

**Zure seme Fernando ere Martin Ibarra Burdinolan ari da.**
Bere aita bezain perfekzionista da. Egiten duena gustatu egiten zaio, eta hori bere lanetan asko igartzen da.

**Durangoko Gran Hotel-eko forja-lanak zuenak dira.**
Bai, kanpoaldeko balkoia eta barruko eskailerak jantzi genituen, besteak beste. Oraindik ez dut sekula hotela bisitatu, egia esanda. Joan behar dudala, joan behar dudala, baina ez zait aukerarik sortu. Artetsu saria jasotzera noala aprobetxatuz, lehenengoz bisitatuko dut.

**Pintura ere gustatzen zaizu.**
Betidanik gustatu izan zait, baina oraintxe murgildu naiz denbora gehiago dudalako. Baten batek "sasoi ederrean" esango du, baina Menchu Gal artista irundarraren ama ere berandu hasi zen.

**Burdina lantzea ez dela emakumeen lana uste dutenen matxismorik jasan duzu?**
Makina bat bider. Badakizu zer egin izan dudan? Komentario guztiak bizkarrera bota, eutsi, eta, posible bada, oraindio gogo handiagoarekin jarraitu lanean.






## Artetsu sariak gaur banatuko dituzte

Gaur, barikuan, 19:30ean, Artetsu sariak banatuko ditu Arbaso elkarteak, San Agustin kulturgunean egingo duten ekitaldian. Bizi osoko ibilbideari dagokion saria Teresa Ibarra nafarrak jasoko du. Elgorriagako Martin Ibarra Burdinolan 40 urte baino gehiagoan egindako lana aintzatetsi gura diote horrela. Bizitzak hartara bideratuta, burdina izan du langai, eta bertan gorpuztu ditu arteagazko kezkak eta ideiak.

Artisautza sustatu eta zabaltzen egindako lana eskertzeko Antxon Aguirre (Donostia, 1946) etnografoa ere sarituko dute. Eusko Ikaskuntzako webgunean artisautzaren gaineko makina bat lan argitaratu ditu, eta zabalkundearen arloan egindako lana eskertu gura dio Aguirreri Arbaso elkarteak.

Erakunde laguntzailearen saria Iurretako Udalak jasoko du. Arbasok hamar urte daramatza Iurretako azoka antolatzen, eta urteetako hartueman hori sarituko dute gaur. Azkenik, komunikabideen atalean Durango Irratiak jasoko du Artetsu saria.







# ahotsenea egitaraua

## ABENDUAK 5

10:30 *Hegats eta Mem u Zin (aurkezpena)*, Kurduen itzulpenak
11:00 *Munduan ortozik (kantaldia)*, Kherau
11:30 *Une bat (kantaldia)* Leok´k
12:00 *Zazpi orduak (solasaldia)* Miren Agur Meabe
12:20 *Vikingoen sorterria (solasaldia)*, Xabier Mendiguren
12:50 *Errepidea (solasaldia)*, Miren Agur Meabe
13:00 *Neskatilak (aurkezpena)*, Askoren artean
13:30 *Itzalpetik (irakurraldia)*, Yolanda Arrieta eta Leire Urbeltz
14:00 *Era (solasaldia)*, Zea Mays
14:30 *Atsekabe zaitut (solasaldia)*, Irati Jimenez
15:00 *Euskal urratsa (solasaldia)*, Patxi eta konpainia
15:30 *Hiri Gorritik (solasaldia-irakurraldia)*, Asier Serrano
16:00 *Barrutik (kantaldia)*, Manent
16:30 *Amerikanuak (kantaldia)*, Audience
17:00 *Dirua, ze gezurra (kantaldia)*, Mongo
17:30 *Laztantzen nauen eskua (solasaldia-elkarrizketa)*, Miren
18:00 *Tatxatuaren azpiko nazioaz (solasaldia)*, Ibai Atutxa
18:30 *Bitsa eskuetan (solasaldia)*, Miren Agur Meabe
19:00 *Sormena landu (kantaldia)*, Azkaiter Pelox
19:30 *Patxa. Besta bai, borroka ere bai (solasaldia)*, Eneko Bidegain

## ABENDUAK 6

10:30 *Ataramiñe* (aurkezpena), Ataramiñe
11:00 *Gizaki bakartiak (solasaldia)*, Beatrice Urruspil
11:30 *Aingeruekin solasean (solasaldia)*, Gabi Oyarzabal
12:00 *Zazpi kolore (liburua + cd irakurketa)*, Jon Arretxe
12:30 *Hiru maria (errezitaldia-irakurketa)*, Arantxa Urretabizkaia
13:00 *Jauzika (solasaldia)*, Bixente Serrano Izko
13:30 *Haragizkoa (kantaldia)*, Rafa Rueda eta Edorta Jimenez
14:00 *Kantaldia*, Gose
14:30 *Poto (solasaldia)*, Pantzo Hirigarai
15:00 *Kalakan (kantaldia)*, Kalakan
15:30 *En Zugwang (kantaldia)*, Bizardunak
16:00 *Aurkezpena*, Pirritx, Porrotx eta Marimotots
16:30 *ENTZUN (liburu aurkezpena)*, Entzun
17:00 *Txinaurriak* (aurkezpena), Bidehuts
17:30 *BI (2)* (solasaldia-kantaldia), Mursego
18:00 *Eta tira eta tunba (kantaldia)*, Joseba Tapia
18:30 *Denbora vs kantuak (kantaldia)*, Keu Agirretxea
19:00 *Almadierra (kantaldia)*, Mielotxin
19:30 *B aldeko kantuak (kantaldia)*, Txuma Murugarren

## ABENDUAK 7

10:30 *Norte Apache + Sobieht (kantaldia)*, Musikherria
11:00 *Musika tresnen hastapenak (liburua-solasaldia)*, Haladzipo
11:30 *Ornitorrinkus (solasaldia)* Ornitorrinkus
12:00 *Bizi bizirik (solasaldia)*, Gozategi
12:30 *Aurkezpena*, Bonberenea Diskak
13:00 *Txatartegiko ipuinak (irakurketa)*, Xabier Etxaniz Rojo
13:30 *Ortzemugak begietan (solasaldia)*, Ken7
14:00 *Osoa, lehiakorra... (solasaldia)* Xabier Amuriza
14:30 *Berastegi trilogia (solasaldia)*, Paulo Iztueta
15:00 *Buru ta zioak (solasaldia)*, Fito Rodriguez
15:30 *Utopiaren itzalak. (solasaldia)*, Asel Luzarraga
16:00 *Don Iñor Ez (kantaldia)*, Bide Ertzean
16:30 *Hau koaderno bat zen (solasaldia)*, Maialen Lujanbio
17:00 *Kantaldia*, Mixel Etxekopar eta François Rossé
17:30 *Albokak 2.1. (kantaldia)*, Leonen orroak
18:00 *Itsasoko izakia (solasaldia)*, Amaia Lasa
18:30 Fikzioaren *izterrak (solasaldia-irakurraldia)*, Ur Apalategi
19:00 *Ametsak eta Oroitzapenak (kantaldia)*, Urko Menaia
19:30 *Mitologia bilduma (kantaldia)*, Txiliku

## ABENDUAK 8

10:30 *Eztarria urratu arte (aurkezpena)*, Gailur
11:00 *Kili kontuak (liburu aurkezpena)*
11:30 *Bulkada (solasaldia)*, Jon Benito
12:00 *Herio heroi (solasaldia)*, Oier Guillan
12:30 *XXI. mendeko piratak (kantaldia)*, Zain
13:00 *Akustikoak eta bestelako uneak (kantaldiak)*, Une
13:30 *Autopsiarako frogak (aurkezpena)*, Koldo Izagirre
14:00 *Liburu aurkezpenak*, Igela
14:30 *Solasaldia*, Mendeku Itxua
15:00 *Moroak gara behelaino artean? (aurkezpena)*, Joseba Sarrionandia
15:30 *Aurkezpen-kantaldia*, Bila Hadi
16:00 *Sentimendu gabe (kantaldia)*, Sarkor
16:30 *Bere oroimenean (kantaldia)*, Seiren
17:00 *Zuzenean bizitzeko gogoa (solasaldia)*, Gatibu
17:30 *Hainbeste, hain gitxi (kantaldia)*, Jon Enbeita
18:00 *Joan (kantaldia-irakurraldia)*, Patxi Zubizarreta
18:30 *Goraka (kantaldia)*, Antton Aranburu & Bidaiari bakartiak
19:00 *Ortozik (kantaldia)*, Sokaide
19:30 *Piztu herria (kantaldia)*, Emon









# Azoka irribarrez betetzera datoz Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak

## 'Irrien lagunak' DVDaz gainera, 'Ongi etorri Pupu eta Lore' labetik atera berri duten CDa dakarte pailazoek



Pirritx, Porrotx eta Marimotots lagun berri bi aurkeztera datozkigu Azokara. *Ongietorri Pupu eta Lore* CDa 19 kanta eta 19 inpuintxo biltzen dituen eta hezkidetza ardatz duen proiektua da. "Hazi eta hezi, osasuntsu eta alai bizi, koloretako euskal Irrian, koloretako munduan", azaldu dute. Pailazoak eta beste hainbat lagun arduratu dira kanta eta istorioak osatzeaz. Moldaketak Xabier Zabala musikariak egin ditu. Proiektuan parte hartu dute Igor Elortzak, Miren Amurizak, Ines Osinagak (Gose), Amets Arzallusek, Beñat Gaztelumendik eta beste hainbat musikari, bertsolari, diseinatzaile eta abeslarik.

*Irrien lagunak* DVDa, berriz, ikuskizunaz gainera, umeek hain gustuko dituzten hainbat erreportaje eta bideoklipez osatuta dago. Pailazoekin batera, Xabier Zabala musikariak eta Idoia Uralde kantariak dihardute oholtza gainean. Urnietako Sarobe antzokian 2010ean grabatu zuten Azokan aurkeztuko duten lana.


# INMOBILIARIAK

**Amboto**
San Agustinalde, 4 - 1 Ezk.DURANGO
TF.: 94 681 35 62 email: iamboto@euskalnet.net

### ETXEBIZITZA SALGAI

#### DURANGO

• Apartamento berriak eraikitzen.700€ hilero.
• Erdialdea: AZKENEKO 2 APARTAMENTUAK. Logela bat edo bikoak, sukalde jantzia, komuna eta horma-armairuak. 150.000€-tik hasita. Lehen mailako materialak. %100eko finantzaketa.
• Intxaurrondo: 2 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta komuna. Igogailua. Berogailua. Guztiz berriztatua.
• Herriko Gudarien kalea: 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela balkoiarekin. Ganbara eta garajea.
• Erdialdean. 123 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Berriztatzeko. Etxe osoak kanpora ematen du.
• Plateruen Plaza: 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin eta egongela. Ganbara eta garajea.
• Alluitz: 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Ganbara.
• Askatasun Etorbidea: Eraikuntza berriak. 2, 3 eta logela bakarrekoak. Durango erdialdean.
• Zeharkalea: Atikoa. Guztiz berriztatua. 2 logela, sukaldea, egongela – jangela eta komuna.
• San Ignazio: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Garajea eta trastelekua. Igerileku komunitarioa. Etxe osoak kanpora ematen du. Prezio interesgarria.
• Andra Mari: 110 m2. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Leku onean.
• Barrenkale: AZKENEKO DUPLEXA. Eraiki berriak.

#### BERRIZ

• Logela, sukalde "amerikarra", egongela eta komuna. Berria estreinatzeko. 96.000€.

#### ZALDIBAR

• 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztatua. Trastelekua.

#### ATXONDO

• 2 logela, komuna, bainugela, sukaldea balkoiarekin eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du.

### TXALETAK SALGAI

#### URRUTXUA

• Baserria, 8 hektareako lursailarekin. Gernika, Durango eta Bizkaiko Balkoiarekin ondo komunikatuta. Prezioa adosteko prest.

#### DIMA

• 2 baserri salgai. 4.000 m2-ko lursailarekin bata, eta bestea hektarea bateko lursailarekin.
( Indusi zonaldean ).

**AGENCIA INMOBILIARIA Fernando Uribe**
Barrenkalea, 15 - bajo - Telf. y Fax: 94 681 64 23
48200 DURANGO / Bizkaia

### ETXEBIZITZA BERRIAK

• Zaldibar: Eraikitzen dauden etxebizitzak salgai.
• Atxondo: Adosatua lursailarekin salgai.
• Abadiño: Txalet bifamiliarra lursailarekin salgai.
• Durango - Erretentxu: Salgai. Adosatuak eraikitzen.
• Otxandion: Adosatuak. Eraikuntza berriak.

### ETXEBIZITZA SALGAI

• Anbrosio Meabe: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 2 logela eta komuna. Ganbara.
• Andra Mari: Halla, sukaldea, jangela, egongela, 4 logela, 2 komun, egongelatxoa. ( 135 m2 ).
• Antso Eztegiz: Halla, egongela, sukaldea, 4 logela, komuna, bainugela, balkoia eta ganbara.
• Aramotz: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela, komuna eta balkoia.
• Artzetagan: Halla, egongela, sukaldea, logela eta komuna.
• Askatasun Etorbidea: Halla, sukaldea, egongela – jantokia, 3 logela eta 2 komun. Garajea.
• Astarloa: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Balkoia.
• Astepe: Halla, sukalde-jangela, 3 logela eta 2 komun. Garaje aeta trastelekua. ( Guztiz berriztatua ).
• Astola bidea: Halla, sukaldea, egongela, 2 logela eta komuna. Balkoia.
• Bernardo Gabiola: Halla, sukaldea, egongela, 2 logela eta komuna. ( Guztiz berriztatua ).
• Bernardo Gabiola: Halla, sukaldea, egongela, 3 logela eta komuna. Despentsa.
• Ermodo: Halla, sukalde-jangela, egongela, 4 logela eta 2 komun. 2 terraza ( bat oso handia ).
• Ezkurdi: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 / 4 logela eta 2 komun.
• F.J. de Zumarraga: Halla, 2 egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna.
• F.J. de Zumarraga: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Balkoia.
• Gasteiz bidean: Halla, egongela, 3 logela, sukaldea eta komuna. Despentsa eta balkoia. Garajea aukeran.
• Goienkalen: Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela, komuna eta ganbara.
• Intxaurrondo: Halla, egongela, sukaldea, logela eta komuna. Trastelekua.
• Iparragirre: Duplexa. Halla, sukaldea, egongela-jangela, 4 logela, 2 komun eta terraza. 2 kotxerentzako garajea eta trastelekua.
• Juan Antonio Abasolo: Halla, sukaldea, egongela, 3 logela eta komuna. Balkoia.
• Juan de Itziar: Halla, egongela, sukaldea, 2/3 logela eta komuna. 2 despentsa/trasteleku eta sotoa.
• Kalebarria: Halla, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Balkoia.
• Kalebarria: Halla, sukaldea, egongela-jangela, 2 logela eta komuna. ( Guztiz barriztuta ).
• Komentu kalean: Halla, egongela-jangela, sukaldea, 2 logela horma-armairuekin eta komuna. Ganbara. ( Guztiz barriztuta eta erdi jantzia ).

**ISD Inmobiliaria del Duranguesado**
Askatasun etorbidea, 10 48200 DURANGO
Tel.: 94 681 66 66 • Faxa: 94 605 69 29
www.inmoduranguesado.com • inmoduranguesado@gmail.com

### ETXEBIZITZA SALGAI

• Askatasun etorbidean: Promozio berriak. 1,2,3 eta 4 logelakoak.
- Logela bakarra garajea eta ganbararekin 200.000€+ BEZ
- 2 logela garajea eta ganbararekin 233.000€+ BEZ
- 3 logela garajea eta ganbararekin 350.000€+ BEZ
• Pagasarri kalea: Azkeneko etxebizitzak salgai. Eraiki berriak. 2 eta 3 logela. Garaje itxia.
• Abadiño: 2 logela eta 2 komun. Garajea eta trastelekua. 120 m2.
• Zaldibar: Aukera. 3 logela. Etxe osoak kanpora ematen du. Berogailua. Balkoia. Garajea.
• Berriz eta Zaldibar: Etxebizitzak salgai. Deitu gaitzazu eta konpromiso barik erakutsiko dizkizugu!
• Abadiño, Muntsaratz eta Elorrio: Etxebizitzak salgai. 2 eta 3 logela.
• Zaldibar: Lursaila salgai eraikitzeko aukerarekin.
• Durangaldea: Baserriak,txaletak,pabilioiak eta garajeak hainbat zonaldetan, salgai edo alokairuan.
• Askatasun Etorbidea: 90 m2. Ganbara handia eta garajea.
• Arkotza: 4 logela, egongela, sukalde jantzia, komuna eta bainugela. Balkoia eta ganbara.
• Andra Mari: 30 m2-ko terraza. 2 logela. Berrriztatua.
• Aramotz: 62 m2. 3 logela. Guztiz berriztatua eta jantzia.
• Mendizabal: 63 m2. 2 logela. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. Ganbara.
• Alluitz – Fray Juan de Zumarraga: 50 m2. Erdi berria. Logela bakarra.
• Txibitena - Landako: Erdi berria. Logela bakarra. Ganbaran beste logela bat. Garajea.
• Txibitena: Etxebizitza handia. 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta 2 komun. Garajea.
• Zumalakarregi – Ezkurdi: 208 m2. 5 logela. Etxe osoa berriztatu behar da.
• Zumalakarregi - Ezkurdi: 130 m2. 4 logela. Garajea. Handia. Orientazio ona.
• Ezkurdi: 100 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Ganbara.
• Fray Juan de Zumarraga: 108 m2. 4 logela. Altuera ona. Garajea.
• Murueta Torre: 120 m2. 4 logela. Garajea eta trastelekua. Balkoia.
• Juan de Itziar: 4 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Bizitzen sartzeko moduan.
• Askatasun Etorbidea: 75 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna.
• Herriko Gudarien kalea: 105 m2. 3 logela. Garaje itxia. Balkoi handia.
• Frantzisko Ibarra: 95 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
• San Ignazio: 104 m2. 3 logela. Garajea eta ganbara. Erdi berria. Altuera ona. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua.
• San Franzisko: 75 m2. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. 2 balkoi.
• Astepe: 3 logela. Garajea eta trastelekua. Etxe osoak kanpora ematen du. Guztiz beriztatua.

**ETXETXO G. INMOBILIARIA**
Saibigain, 1(sarrera F. J. de Zumarraga kaletik)
Tel.: 94 681 40 49 • DURANGO • www.inmoetxetxo.com

### ERAIKUNTZA BERRIAK

IURRETA
• Maspe: Eraikuntza berria. 1, 2, 3 eta 4 logelako etxebizitzak. 210.500€-tik hasita.
DURANGO
• Etxebizitzak salgai terrazarekin. 1, 2, 3 eta 4 logelako etxebizitzak.
MAÑARIA
• Berriak. 140 m2. 3 logela eta 2 komun. 80 m2-ko trastelekua.
ABADIÑO
• 2 eta 3 logelako etxebizitzak. 30 m2-ko terraza. Garajea eta trastelekua. Sukalde jantzia. 265.000€-tik hasita.
ZALDIBAR
• 138.000€–tik hasita. Garaje aeta trastelekua. Berehalako banaketa.

### ETXEBIZITZA SALGAI

• Astxiki: 115 m2. 3 logela eta 2 komun. Garajea eta ganbara.
• Sasikoa: 3 logela. 2 terraza. Berogailua eta igogailua. Ganbara eta garajea. 240.000€.
• Aramotz: 3 logela, egongela eta balkoia. Despentsa. Eguzkitsua. 165.000€.
• Erdialdean: Apartamentua. Guztiz jantzia. 210.500€.
• J.Olazaran: 100 m2. 3 logela eta 2 komun. 2 terraza. Ganbara eta garaje itxia.
• Lehendakari Agirre: 90 m2. 3 logela eta 2 komun. Terraza eta eskegitokia. Ganbara eta garajea.
• Intxaurrondo: 2 logela. Berria. Pisu altua.
• Artekale: 80 m2. Berria. 2 logela. Polita.
• Landako(kiroldegia): Apartamentua. 185.700€.
• Franzisko Ibarra: Erdi berria. 75 m2. 2 logela, egongela eta eskegitokia. Ganbara eta garajea.
• Astepe: 3 logela eta 2 komun. Garajea eta trastelekua.
• Madalena: Atikoa. 2 logela. Terraza. Ikuspegiak.
• San Ignazio: 95 m2. 3 logela eta 2 komun. 2 terraza 12 m2 eta 8 m2-koak. Ganbara eta garajea. Eguzkitsua.
• Muruetatorre: 75 m2. 2 logela, 2 komun eta sukaldea balkoiarekin. Garajea eta trastelekua. Eguzkitsua.
• Andra Mari: Apartamentua. Jantzia. 162.000€.
• Tabira: Apartamentua. Garajea. 237.400€.
• Erretentxu: 85 m2. 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garaje itxia aukeran. Eguzkitsua. Ikuspegiak.
• Landako: 90 m2. 3 logela eta 2 komun. 2 terraza.
• Plateruen Plaza: Atikoa. 2 logela eta 2 komun. 40 m2-ko terraza. Estreinatzeko. Duplexa egiteko aukerarekin. Garajea.
• San Fausto: 1. solairua. 3 logela. Berria. 150.000€.
• Undatorre: 60 m2. 3 logela. 173.300€.
• Garai: Txaleta. 250 m2. 4 solairu. Txokoa. Terraza.
• Elorrio: 2 logela, egongela, sukalde-jangela. Trastelekua. Garaje handia. 182.600€.
ABADIÑO-MATIENA
• Matiena: 100 m2. 4 logela eta 2 komun. Terraza. Ganbara. Eguzkitsua. 252.500€.


ZELETABE
Auzoa Promociones S.A.
1, 2 eta 3 gelako etxebizitzak
Kalitaterik oneneko materialak
• Etxebizitza guztiek honakoak dauzkate:
- Sukalde modernoak behar den guztiarekin.
- Haritzezko tarima eta barruko ateak. Ateen pieza metalikoak kromatuta.
- Horma-armairuak. Barrualdea hornituta.
Erosketa aukeradun alokairua
Iturritxo, 7 behea eskuma • 48220 Abadiño
Tel./Fax: 94 466 89 56
www.zeletabe.com
zeletabe@zeletabe.com

# Durangaldeko sortzaileen ipuinak, argazkiak, oroimenak eta irudiak

Eskualdeko sortzaileek aurten argitaraturiko lanak ere Azokako standetan aurkituko dituzue; argazki-liburu, dokumental eta liburuak.



## 'Gertukoak-ausencias', Jesus Mari Arruabarrena

Arruabarrena argazkilari garaitarrak joan zen udaberrian kaleratu zuen *Gertukoak-ausencias* liburuko argazki zein testu interpretatiboetan arakatuta, galerari eta oroimenari buruzko gogoetak topatuko ditu irakurle-ikusleak.

Egilearen berbetan, orain arte egin duen lanik "pertsonal eta fotografikoena" da orriotan batutakoa. Amaren Abadiñoko Gaztelua auzoko baserrian egindako argazkiak, Galiziako Costa da Morteko edo Kantabriako Pas haraneko leku eta bizilagunak erakusten dituztenak dira, nekazal eta landa gunetan ateratakoak: erretratuetan ageri diren pertsonei, lanbideei eta Arruabarrenarentzako esangura berezia duten lekuei egindako omenaldia ere bada liburua. Galtzear dauden bizimoduak gorde ditu liburuko argazki eta berbetan Arruabarrenak, barruak liburuan hustuaz zelanbait.

*Gertukoak-ausencias* liburuko argazkietatik gehien hunkitzen duena aitaren gaztetako bat dela aipatu zigun Arruabarrenak, urte hasieran beragaz izan genuen elkarrizketan, baina orriotako argazki eta hitz guztien atzean dago barrena ukitu dion zeren bat.

## Tamur ibaiaren inguruko bizipenak dokumentalean

Bideografik ikus-entzunezkoen ekoizpen-etxearen eta Ur-Nomad taldearen sorkuntza da Durangoko Azokan aurkeztuko duten *Tamur: Kangchenjungaren harribitxia* dokumentala. Orain urte bi Nepalera egindako bidaiaren kontakizuna da irudi eta soinuotakoa. Nepalgo Tamur izeneko ibaia kayak bidez jaistea zen Txus Ruiz de Erentxun gidari zuen espedizioko kirolari eta sortzaileen helburua. Aitzakia hori hartuta, baina, dokumentalaren ikusleei herri eta kultura haren ikuspuntu ederra eskaintzea lortu dute, bildutako irudi eta soinuen bitartez: "Asiako lekurik benetako eta ederrenetako batean murgiltzea".

Achuut-ek eta Txusek zuzenduriko espedizioak Nepalen egin zuena sei eguneko abentura izan zen, eta bertako jendeagaz hartu-eman zuzenean, bizipen ahaztezinak gozatu zituzten. Bihar, abenduaren 4an, euren bidaia eta sorkuntza esperientzia berbaz azaltzen izango dira Bideografikeko sortzaileak Azokako aretoan. Abenduaren 8an, San Agustin kulturgunean emango dute *Tamur: Kangchenjungaren harribitxia,* 12:00etan.




## Sarrionandia iurretarraren testigantza eta gogoetak

Aurten euskaldun irakurle gaztetxoenendako *Idazlea zeu zara irakurtzen duzulako* liburua ere argitaratu duen Joseba Sarrionandia idazle iurretarraren gogoetak biltzen dituen saiakera-liburua da Durangoko Azokan Pamiela argitaletxearen eskutik jasoko dugun *Moroak gara behelaino artean?*

Zazpiehundik gora orrialde eta berrehun argazki, testigantzak eta gogoetak biltzen dituen lana da Durangoko 45. Liburu eta Disko Azokara Joseba Sarrionandia idazleak dakarkiguna. "Pertsonaia historikoak eta gerra kolonialei buruzko gogoetak, aitormen pertsonalak eta iritzi politikoak, biografia bitxiak eta pasadizo sinesgaitzak, hizkuntzei buruzko ideiak", topatuko ditu *Moroak gara behelaino artean?* liburuan irakurleak, lana argitaratu duen Pamiela etxeak aurreratu duenez.

Gaiak mugatu barik, "elementu diskordanteak" kanpoan utzi barik, akademisizta izan barik... dio egileak idatzi duela liburua: "Diskordantziei buruz idatzi nahi izan dut; diskordantziek elkarri argi apur bat emateko, konstelazioetan izar batek bestea bezala".




## Elorrioko pilotarien lorpen historikoak gordetzeko



Mende erdi bete da aurten, eskuz pilotako hiru kategoriatan txapel bana ekarri zutela Elorriora Hilario Azkarate, Felipe Lejarazu eta Jose Antonio Álvarez pilotariek. Lorpen hura eta garai hartako oroimena datozen belaunaldiek ere gogoan izan ditzaten kaleratu dute *Elorrio, txapeldunen herria* liburua, "gazte askok historiako pasarte hori ez duteeta ezagutzen", egileen berbetan.

Ricardo Ajuria, Agustin Urizar eta Jose Luis Arruabarrena Gerediaga elkarteko kideek osatu dute liburua, eta elkarte horren standean ipiniko dute Liburu eta Disko Azokan eskuragai.

"Elorrioko pilota mundua zuri-beltzekoa zeneko gorabeherak eta xehetasunak ekartzen saiatu gara", diote egileek liburuaren hitzaurrean. Sasoiko hainbat artxibo, egunkari, argazki eta elkarrizketatan arakatu dute hiru egile elorriarrek, eta jasotako dokumentazioagaz garai hura irudikatzen saiatu direla azaldu dute. Liburuan jasotako pasadizo eta berbei "kolorea eta bizitasuna" Azkarate, Lejarazu eta Alvarezek eurek ipini dietela azpimarratu dute egileek.

Repara Tu Vehículo
Otra mecánica es posible

Bestelako mekanika bat posible da

Erraz, denbora eta dirua aurreztuz

Tailer mekanikoa ulertzeko modu berri bat, ibilgailua zeuk konpondu ahal izan dezazun. Gidariek eta erabiltzaileek prezio onean euren ibilgailua konpontzeko gunea, zain egon gabe eta dirutzarik xahutu gabe, bakoitzak behar dituen ordezko piezak ekarri edo bertan eskuratu ditzake-eta.

Zure eskura jarriko dugun tailer batean

Makina arloan azkeneko teknologia zure esku, eta RTVk behar duten bezero guztiei eskaintzen dien doako aholkularitza ere bai. Gainera, ordezko piezen denda ere badugu behar duzun guztia eskuratzeko.

Aste osoan zehar
(astelehenetik igandera

Bezeroen beharren arabera egokituz, RTVk ordutegi malgua du, astelehenetik igandera 09:30etik 21:30era ateak zabalduz, bakoitzak aukeratu dezan bere ibilgailua zaintzeko ondoen datorkion unea.

Erreserbatu zure boxa azkar!
Eman izena trebakuntza ikastaroetan!

Durango-Bilbo N-634 errepidea, 82 km.
UEI-3 poligonoa, 5 zk. behealdea
48215 Iurreta
Tel./Fax: 94 681 79 14
info@reparatuvehiculo.com
www.reparatuvehiculo.com
LASTER, BILBOKO EGOITZA ZABALIK

Olioa eta filtroa aldatzea 24€ -tik hasita

Errekuntza-tokia eta haizearen filtroa aldatzea 44€ -tik hasita



Prezio hauek eskainiriko zerbitzu guztiak erabiltzeko 3 o. 15 min -an erabiltzeko box bat alokatzean lotuta daude, Gulf10w 40 olioa, Mann filtroak, eta RTV tresnak eta piezak erabiliz. Begiratu beste prezio batzuk.

# Platerueneko zuzeneko eskaintza, musika estilo askoren uztartzea

Disko berrien aurkezpenez gainera, deneriko ekitaldi eta hartu-emanetarako topaleku izango da aurten ere Plateruena kafe antzokia; 'Iparraldea zuzenean' deituriko ziklo bereziaren baitan, berbarako, hainbat kantari eta taldek girotuko du Azoka ondoko kulturgunea.



Gaueko eskaintzagatik nabarmentzen bada ere, Plateruena kafe antzokian egunez ere antolatuko dituzte kultur ekintzak 2010eko Durangoko Azokaren ediziorako. Gauez, gaur egungo talde esanguratsu asko pasatuko da oholtzatik –diskoak aurkeztuz, gainera–, eta, eguerdi partean, folk estiloa nagusituko da bertan. Iparraldeko artistek izango dute giroa berotzeko ardura.

Patxi ta Konpainia taldea izango da lehenengoa eguerdietako egitarauan. Abenduaren 5ean musikagaz eta dantzagaz dugu hitzordua; izan ere, hainbat dantza eta pausu erakustera etorriko dira Patxi eta lagunak, 13:00etan. Hurrengo egunean, hilaren 6an, Kalakan hirukotea ariko da: Thierry Biscaryk, Jamixel Bereauk eta Paxkal Indok osatutako taldeak lehenengo lana aurkeztuko du, 13:00etan; perkusioa, ahotsa, erritmoa eta melodia bateratzen dituzte euren emankizunetan.

> Kalakan hirukoteak perkusioa, ahotsa, erritmoa eta melodia dakartza

> Beñat Achiaryk 'Larrosaren salbaia' lan berria aurkeztuko du

Abenduaren 7an bi emanaldi eskainiko dituzte: Beñat Achiary & Michelle Queille eta Mixel Etxekopar & Francois Rossé. Achiaryk, 13:00etan, *Larrosaren salbaiak* aurkeztuko du. Jon Mirande, Josean Artze, Auxtin Zamora eta Manex Lanatuaren poesiak oinarri hartu ditu oraingoan, eta pianoan lagun egingo dio Queillek. Etxekoparrek, bere aldetik, *Transhumantzia* diskoa taularatuko du, 14:00etan. Zuberotarrak Rossé alsaziarraren laguntza izango du, pianoan.

Bestalde, Azokako egitarauagaz amaitzeko, kontzertua emango du Korrontzik abenduaren 8an, Oinkari dantza taldeagaz batera.

> Mixel Etxekoparrek 'Transhumantzia' diskoa taularatuko du Plateruenean



estreinua
LKM-LARRIA, KUTSAKORRA ETA MENDEBALDEKOA
Tartean Produkzioak
Abenduak 8 • 12:00etan
San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA


## PLATERUENA
Durangoko Kafe Antzokia

### EGUNEKO EKITALDIAK

**Abenduak 4**
13:00 Adierazi EH. Musika eta literatura

**Abenduak 5**
13:00 Patxi ta konpainia. Dantza

**Abenduak 6**
13:00 Kalakan. Kantaldia

**Abenduak 7**
13:00 Beñat Achiary & Michelle Queille. Kantaldia

14:00 Mixel Etxekopar & Francois Rossé. Kantaldia

**Abenduak 8**
13:00 Joseba Jakaren omenezko IX. Herri-lasterketa. Sari banaketa

18:00 Korrontzi + Oinkari dantza taldea. Kontzertua



ABENDUAK 3

## Esne Beltza

Azoka abenduaren 4an hasiko bada ere, Plateruena kafe antzokian gaur –abenduaren 3an– hasiko dira giroa berotzen. Goraldian dagoen Esne Beltza taldeak zabalduko du egitaraua gaur, gaueko 22:00etan. *Noa* diskoa aurkeztera datoz Durangora, trikitixa, haize-instrumentuak, gitarrak eta elektronika efektuak uztartuz. Euskaldunok deabrua gerrian daramagula diote!

Aurretik Etzakit, 4Itzal eta The Solanos taldeetan ibilitako Xabier Solano dute buru, eta beragaz esperientzia handiko musikariak; Izotz eta Joxe Ripiaun ibilitakoak, besteak beste.

ABENDUAK 4

## Kenzazpi

*Ortzimugak begietan* lan berria aurkeztuko digu talde gernikarrak, gaueko 22:00etatik aurrera. Bere ibilbideko seigarren diskoa da hau; laugarrena, akustikoa eta zuzenekoa kontatu ezean.

Aurreko lanetan baino doinu espektro zabalagoa eskainiziguten *Argiak* diskoan, eta oraingo honetan ere horretan sakondu dute. Pertsonalitate berezia eratu du Kenzazpik, Euskal Herrian aitzindaria eta nobedadea dena momentu honetan. Sentipenak, argiak, urruneko doinuak... Ortzimugarako bidaian eroango gaituzte gernikarrek zapatuan.





ABENDUAK 5

## Gatibu

Hiru disko kaleratu ondoren, Gatibu taldea zuzeneko lan bategaz dator Durangora: *Zuzenean bizitzeko gogoa*. Lan honetako hainbat irudi, gainera, Platerueneko kontzertu batean grabaturikoak dira. DVD formatuan ipini dute salgai.

Alex Sarduik gidatzen duen taldea 2002an hasi zen bidea zabaltzen, eta lehenengo diskoak edukitako arrakastari eusten jakin dute. *Alkondarie!* efektua ez dela kasualitatea erakusten dabiltza, eta horixe bera azalduko dute Plateruenean, zuzenean.

ABENDUAK 6

## Atom Rhumba + Audience

Atom Rhumba bilbotarrak bueltan dira. Seigarren diskoa dakarte besapean: *Gargantuan Melee*. Rocka jorratzen dute, baina beste hainbat estilotatik edanez. Planteamendu ausartak eta konplexurik bakoak dira eurenak.

Gernikako Audience taldeak lagunduko die euren itzuleran. *Amerikanuak* dokumentalaren soinu banda sortu berri dute, eta berau entzuteko aukera ederra izango dute zaleek. Ibilbide luze eta oparoa duen taldea da Audience.









ABENDUAK 7

## Bide Ertzean + Txuma Murugarren

Bide Ertzeanek eta Txuma Murugarrenek itxiko dute Azokara begira antolatutako gaueko egitaraua. Tolosarrek *Don Inorrez* lana dakarte, eta Murugarrenek *B aldeko kantuak*.

Bide Ertzean taldeak zazpigarren lana du honakoa; 2009an *Leidor Sessions* zuzenekoa grabatu zuten; 2006an kaleratu zituzten aurreko abestiak *Non dira* diskoan.

Txuma Murugarrenek bakarkako seigarren produkzioa aurkeztuko du, “irratian entzuten ez” diren kantuei eskainitakoa.

# Bilatzen ari zarena zain duzu, Zarate eta Elexperen eskutik, Iurreta, Elorrio eta Durangon

Durangaldean erreferentzia den enpresa sustatzailea da Zarate eta Elexpe. Higiezinen sektorean lan sendoa egiten du, eta belaunaldi aldaketak egitasmo berriak ekarri ditu, aurrekoen filosofia mantenduz



## Plaza berria, jolasgune eta inguru berdeekin, Iurretan

Etxebizitzen magalean gune berdeekin eta jolasguneagaz atondutako plaza eraiki dute. Helduei birikak garbitu eta, patxadan, begiei atsegin gozatsua emateko aukera eskaintzen die ingurune berriak. Gaztetxoei ez zaie dibertimendurik faltako askotariko txintxaunekin.

JOLASGUNEA
- Umeentzako prestaturiko parkea, kulunka eta gainerakoekin.
- Berdegunea.

ZONALDE EROSOA
- Leku oso lasaia.
- Umeentzako segurua.
- Ibilgailuentzako eta oinezkoentzako bi zubi berri eraiki dira.
- Aparkaleku erosoa.



## Neurriko etxebizitzak paraje lasaian, oraindik eskuragarri

Iurretan, Zarate eta Elexpek plaza inguruan altxatutako Elixaldeko etxe-blokeetan oraindik bi, hiru eta lau gelako etxebizitzak eskuratu daitezke. Oraindik etxebizitza apropos hori aurkitu dezakezu, bila zabiltzana, neurri-neurrikoa.

**ONDO KOMUNIKATUTA**
- Eskola, frontoia eta liburutegitik hur.
- Udaletxea alboan.
- Durangotik gertu.

## Buruan duzun etxebizitza Elorrion aurkitu dezakezu

Durangaldean erreferentzia eta esperientzia handia daukan enpresa da Zarate eta Elexpe. Konpromiso sozialaren bidea jorratuz, herritarrei aukera onak eskaintzea dute helburu, eta Elorrion ere hori gertatzen da. Elorrioko eskaintzan, **bost pisu** eta **adosatu bi** oraindik eskuragarri daude. Buruan duzun etxebizitza hori Elorrion duzu zain.

### PISUAK

- 1, 2 edo 3 gelakoak, ganbaragaz.
- Garaje itxia, ate mekanizatuagaz.
- Plazatik gertu.

### BI BIZITZAKO ADOSATUAK

- Partzela eta garajeagaz.
- Isolamenduen kalitatea bermaturik.
- Behealdean toki zabala (txoko, egongela edo tailerrentzako egokia).
- Adosatuen inguruan partzela pribatu zabala.






KALERA BEGIRA


PARKERA BEGIRA

## DURANGO

# Francisco Ibarra kalean abian da promozio berria

Durangoko Francisco Ibarra 11 kalean eskainiko du hurrengo promozioa Zarate eta Elexpek. **Gela bateko, biko eta hiruko** etxebizitzak ipiniko dituzte aukeran. Horietako bi teilatuan terraza zabalagaz eskuratu daitezke. Salmentak laster hasiko dituzte; beraz, zerrendan **izena emateko epea** zabaldu dute. Interesa duena Zarate Elexperen bulegora deituta apuntatu daiteke.

**DATUAK**

- 1, 2 eta 3 gelako etxebizitzak, ganbaragaz.
- Garaje itxia, ate mekanizatuagaz.
- Gorengo etxebizitzek teilatuan terraza zabala eta espaziotsua dute.
- Erdialdetik gertu.



## GURE FILOSOFIA

- Etxebizitzen kudeaketa, sustapena eta eraikuntza ditugu lan esparru Zarate eta Elexpe enpresan.
- 1960an hasi genuen ibilbidea bi kide ekintzaileren eskutik, eta urtez urte sendotzen joan den proiektua da.
- Lan filosofiak oinarri bi ditu: giza-talde kualifikatua eta produktuaren kudeaketa integrala.
- Helburua bezeroaren eskakizunei modu osoan erantzutea da, konfiantzan eta profesionaltasunean oinarritutako hartu-emana ezarriz.
- Proiektu bakoitza modu partikularrean lantzen dugu: lurrak erostea bideragarritasuna aztertuz, proiektua zehaztea, kontu handiz gauzatzea eta sustapenak zuzenean bezeroen artean merkaturatzea.
- Enpresa osatzen duen giza kapitalaren prestakuntzaren aldeko apustu irmoa egiten dugu.
- Zarate eta Elexperen konpromisoa enpresa soiletik harago doa, inguruneagazko gizarte ardura gure gain hartzen dugu-eta.



Eskaintzak bertatik bertara ezagutu ahal izateko, obrak dirauen bitartean **bisita gidatuak antolatzen dira**. Izan be, bezeroagazko arreta irizpide garrantzitsua da Zarate eta Elexpe Eragileak-entzat. Informazio gehiago gura izanez gero:

ZARATE ELEXPE
E R A G I L E A K

BIXENTE KAPANAGA, 19 BEHEA • 48215 IURRETA • TELEFONOA: 94 681 66 73 • WEB: www.zarateyelexpe.com

# Durangaldeko hiru talderen doinuen oihartzuna Azokan

Lehenengo diskoak dituzte 'Omertá' eta 'XXI. mendeko piratak' Mafia eta Zain laukoteek, eta lehen diskoa kaleratu zutenetik hamar urte igaro direnean dakar 'Ausardiaren garaia' izeneko laugarrena Yakuzi talde elorriarrak. Azokarako prest, entzungai daude hiruak.



## "Mutu utziko zaituen euskal rocka", **Mafia** taldearen lehenengo diskoan

Mafia siziliarraren kode sekretuari, "isiltasunaren legeari" egiten dio erreferentzia Mafia laukotearen lehengo diskoaren *Omertá* izenburuak. Diskoaren izenerako proposamenak jasotzeko Facebook bidez egin zutela deialdia kontatu digute, eta horrela aukeratu zutela *Omertá*. "Ikutu *heavya*, baina stonner kutsua ere" baduten kantak direla azaldu digu taldeko Etxek: "Hegoaldeko yankien musikaren, rock amerikarraren kutsua daukala esango nuke".

Gurean gutxitan jorratzen den eran, gitarren rif pisutsuak, melodiak eta ahotsak landu dituzte bereziki: "Bi ahots baino gehiago daude zati batzuetan". Mafia taldean egin gura dutena zerbait berria dela azaldu digu taldeko baxu-jotzailea den Etxek: "Eta arriskatu egin gara".

"Euskal rockaren odol berria, mutu utziko zaituena" da taldekideak batzen dituen lema. Hasieratik, dena denen artean egin dute Mafiakoek: kantetako doinuak zein letrak ere elkarregaz, "familian" egin ei dituzte. Iraila eta urrian grabatu zuten diskoa, uda lana prestatzen eman ondoren, eta Azokan Gor disketxearen standean topatuko duzue hamahiru kantak osatzen duten diskoa salgai.

Orain urte bi, Shinova, Seiurte, Nabari eta Kraven lako taldeetan jardun duten edo dabiltzan musikariak elkartuta sortutakoa da Mafia proiektua, eta *Omertá* dute lehenengo diskoa.

**OMERTÁ**

*Egilea:* Mafia
*Ekoiztetxea:* Estoldetan



## **Yakuzi**: sentsazioak transmititzeko, musika instrumentala oinarri

Azokan, Bonberenea Ekintzaken standean dago Yakuziren laugarren lana eskuragai. Eskaintza berezian, gainera, *Hot balneario* aurreko diskoa eta *Ausardiaren garaia* berria 12 eurotan eskainiko dituzte. Bederatzi kantaz osatutako lana da *Ausardiaren garaia*, eta Ama Say eta Eten taldeko lagunek zein Amsia djak kolaboratu dute. "Diskoa gordinagoa, ilunagoa", dela diote, "hainbat entzunaldi behar dituena". Sanpler gutxiago eta rock gehiago dituena.

Musika instrumentala egiten hamar urtetik gora daramatza Yakuzi laukote elorriarrak: ahotsa instrumentu bat gehiagotzat daukate. "Sentsazioak transmititzen saiatzen gara", dio Gorka Molero taldekideak. Lokalean, denen artean sortutako kantak, "gehienak maite edo gorroto ditugun pertsonei eskainitako bertsoak besterik ez dira, une horretan ditugun sentipenen araberakoak", diote elorriarrek letrei dagokienez, esanahiak, baina, "bakoitzak aurkitu beharrekoak" direla azpimarratuz.

Hamar urte dira lehenengo diskoa kaleratu zutenetik, eta "oso positibotzat" dute hamarkada: lau disko kaleratu dituzte, Bartzelonako Primavera Sound jaialdian eta beste leku askotan jo dute... Abenduaren 3an Elorrioko Gaztetxean egingo dute diskoaren aurkezpen kontzertua, eta Benicarló, Madril, Hondarribia, Berriz eta Bilbon joko dute datozen asteetan.

**AUSARDIAREN GARAIA**

*Egilea:* Yakuzi
*Ekoiztetxea:* Bonberenea Ekintzak





## Hamabi kantu biltzen dituen **Zain** laukote berriztarraren disko berria



Hamabi kanta: aurretik kaleratutako maketan batutako bost kanta, disko honetarako egindako beste sei eta Berrizko Hiltegixe gaztetxearen hamargarren urteurrenerako egin zuten kanta ere biltzen ditu 2010eko Gaztea maketa lehiaketako irabazle izan zen Zain taldearen *XXI. mendeko piratak* lehenengo diskoak. Maketa lehiaketa irabazita lortu zuten Bilbao Live jaialdian jotzea, eta Kobetamendin bizitako esperientzia kontatzen dute disko berriko *2010eko uztailak 10* kantan. Umetako oroitzapenak kontatzen dituen *Ume izan nahi dut* kanta aukeratu dute disko aurkezpenerako single moduan: gazte izanagatik, nagusitzen joan ahala, bizitzaren esparru anitzetan zein musikari dagokionez ere geroago eta erantzukizun handiagoa izateak sorturiko estutasuna erakusten dute letra batzuek, momentuko bizipenen isla baitituzte kantak, sentipenen adierazpen.

Baina, funtsean, musika disfrutatzeko egiten dutela, eta estutasunei aurre egiteak merezi duela erakusten duten kantak ere asko dituzte diskoan; musika delako egiten duten guztiari zentzua ematen diona, denaren zutabea.

Orain aste batzuk eman dute punk, pop zein rock doinuekin osatutako diskoa amaitutzat, eta Bilbao Live jaialdiko zuzenekotik kontzerturik eskaini barik dago Zain. "Gura duguna horixe da", dio Unai gitarrista eta abeslariak, "kontzertuak eskaintzea, esperientziak bizitzea".

**XXI. MENDEKO PIRATAK**

*Egilea:* Zain
*Ekoiztetxea:* Baga-Biga musika ideiak




45
Durangoko
Euskal Liburu eta
Disko Azoka
2010eko abenduaren 4tik 8ra
Literaturaren alde gaude, musikaren alde. Ezagutza bultzatzen dutenen alde gaude, unibertsoak sortzen dituztenen alde, hitza guztion gune bihurtzen dutenen alde.
Kulturaz mintzo garenean, guztion mintzaira baitarabilgu.
Entzuten zaitugu
www.eroski.es/compromisos
902 540 340
EROSKI
zurekin

# Beste kultura-azoka batzuekin harremana hasi dute Galizian

Culturgal kultura galegoaren azokan parte hartu dute Gerediaga elkarteko kide bik, eta bertan Durangoko esperientzia kontatu eta beste zenbaiten esperientzien berri izan dute.



Durangoko Azoka hasi aurretxoan Pontevedrara bidaiatu dute Azokako zuzendari Jon Irazabalek eta Izaskun Ellakuriaga komunikazio arduradunak. Bertan egin dute, azaroaren 26tik 28ra, kultura galegoaren Culturgal azokaren hirugarren edizioa. Gerediagako bi kideek kultura-azoken arteko mahai-inguruan parte hartu zuten.

“Durangoko Azokara begira fruituak eman ditzakeen bisita” izan dela nabarmendu du Izaskun Ellakuriagak. Galiziako azokan hainbat kultura adierazpenetako profesionalak batzen direla azaldu du, eta aurten elkarte bat sortu dutela argitaletxeak, antzerki elkarteak, musika produktoreak eta abar batzeko.

> Galiziatik etorrita, azoken arteko hartu-emanagaz jarraitzekotan daude

Gerediagak parte hartu duen foroan, beste bi azokatako ordezkariak egon dira: Monkey Week Puerto de Santa Mariako musika independientearen azokakoa eta Miguel Freitas da Acosta, Lisboa eta Oportoko liburu azoken zuzendaria.

Mahai-inguruan bakoitzak bere azoka eredua azaldu zuela kontatu du Izaskun Ellakuriagak: “Culturgaleko antolatzaileek Durangoko Azokari buruz jakinmin handia zeukaten, beharbada antzekotasun edo lotura handiena zuelako eurenagaz”. Dena dela, Culturgalen publikoa batez ere profesionala dela azaldu du Ellakuriagak. Publiko orokorrarengana zelan heltzen diren galdetu zieten Gerediaga elkartekoei.

Azoka ereduen ordezkariek esandakoekin “ohar mordoa” hartuta etorri dira Gerediagako lagunak Euskal Herrira. Elkarrengandik ikasitakoagaz pozik, aurrerantzean ere hartu-emanetan jarraitzeko asmoa daukate.

## Azokako informazioa sarean eta telebistaz

Gerediaga elkarteak azokaren informazio guztia *www.durangokoazoka.com* atarian ipini du. Bertan, Azokako katalogoa, zapatutik eguaztenerako egitarau osoa, Azokako planoa, eta Azokaren inguruan jakin beharreko beste hainbat kontu batu ditu Gerediagak.

> Azoka TB ipiniko dute, Landakon eta webgunetik ikusteko moduan

Erakustazokan bertan Azoka Telebista ikusteko aukera eskainiko dute aurten, bigarren urtez. 4x3 metroko pantaila erraldoia ipiniko dute eta Euskaltelen banda zabala edukiko du. Horrela, Azokan bertan zein etxetik ikusi ahalko da Azoka TB, *www.durangokoazoka.com* webgunetik.

Bide horietaz gainera, sare sozialen bitartez ere eduki ahalko du gura duenak Azokaren gaineko informazioa. Facebook eta Twitter sareetan Gerediagak bere txokoa zabaldu du, erabiltzaileak une oro informatzeko.




Durango
Uribarri 13 • Tel.: 94 623 26 21
Konfiantzaren balioa
piso on
zure neurrira egindako konfiantzazko irtenbideak
DURANGO Erref. 002-1050
114.192€ (19 milioi)
2 logela, komuna eta sukalde-jangela-egongela.
BIZITZEN SARTZEKO MODUAN. AUKERA ONA!
MATIENA Erref. 002-1136
137.631€ (22,9 milioi)
2 logelako pisu eguzkitsua, ganbararekin. Berogailua.
BIKOTE GAZTEENTZAKO AUKERA ONA!
DURANGO Erref. 002-1107
173.692€ (28,8 milioi)
Berriztatua. 3 logela, egongela handia, sukaldea eta komuna. Trastelekua.
DURANGO Erref. 002-1206
204.344€ (34 milioi)
2 logela bikoitz, egongela terrazarekin. Guztiz berriztatua. Erdialdean kokatua.
BIKOTE GAZTEENTZAKO AUKERA ONA!
DURANGO Erref. 002-1140
216.000€ (35,9 milioi)
Erdialdean kokatua. Guztiz berriztuta dagoen etxebizitza. 2 logela. Eguzkitsua. Orientazio ona.
BERRIA DIRUDI!
TABIRA Erref. 002-1158
222.374€ (37 milioi)
9 urte dituen etxebizitza. Egongela handia, sukaldea balkoiarekin, komuna eta logela. Garajea aukeran.
BERRIA DIRUDI!
SASIKOA Erref. 002-882
231.389€ (38,5 milioi)
Orientazio oneko pisua. Eguzkitsua. 15 urte ditu. 2 logela eta berogailua.
EZ GALDU AUKERA HAU!
SALTZEKO PREMIA!
ABADIÑO Erref. 002-1144
240.404€ (40 milioi)
Beheko solairua 160 m²-ko terrazarekin. 4 urte. 2 logela, garajea eta trastelekua.
BERRIA DIRUDI! SALTZEKO PREMIA!
DURANGO Erref. 002-831
270.455€ (45 milioi)
Landako zonaldean. 3 logela, komun bat eta bainugela. Garajea eta ganbara. AUKERA ONA!
NEGOZIAGARRIA!
FCO. IBARRA Erref. 002-1203
279.470€ (46,5 milioi)
8 urteko aintzinatasuna duen etxebizitza. Orientazio ona. 2 logela, komuna egongela handia eta sukaldea. Garajea eta ganbara. AUKERA!
PLATERUEN PLAZA Erref. 002-719
294.495€ (49 milioi)
12 urteko etxebizitza. 120 m². 4 logela, 3 komun, 22 m²-ko egongela, garajea eta trastelekua. NEGOZIAGARRIA!
MURUETA-TORRE Erref. 002-1204
309.521€ (51,5 milioi)
8 urteko aintzinatasuna duen etxebizitza. Eguzkitsua. 2 logela bikoitz, 2 komun, egongela handia eta sukaldea balkoiarekin. Garajea eta ganbara.
PISU ONA!
SAN IGNAZIO Erref. 002-1188
312.526€ (52 milioi)
14 urte dituen etxebizitza. 90 m². 3 logela bikoitz, 2 komun, sukalde handia eta egongela. Ganbara eta garajea. AUKERA ONA!
SAN ROKE Erref. 002-1182
321.541€ (53,5 milioi)
Pisu altua igogailuarekin. 3 logela, sukaldea balkoiarekin, komuna, egongela handia eta bainugela. Ganbara eta garaje itxia.
DURANGO Erref. 002-1176
330.000€ (54,9 milioi)
99 m². Pisu altua. Eguzkitsua. 8 urte dituen etxebizitza. 3 logela bikoitz, 2 komun, egongela handia eta sukaldea. Garajea eta ganbara aukeran.
LURSAILA-BERRIZ Erref. 002-1166
324.546€ (54 milioi)
3.005 m²-ko lursaila. Bizitza unifamiliarra eraikitzeko aukerarekin. Ur tomak, argia eta telefonoa. ZURE AUKERA DA!
MURUETA-TORRE Erref. 002-839
372.627€ (62 milioi)
8 urteko aintzinatasuna duen pisua. 3 logela doble, egongela handia, 2 komun eta sukaldea. Garajea eta trastelekua. AUKERA ONA!
NEGOZIAGARRIA!
ELORRIO Eraikuntza berria
2 logela trastelekuarekin 177.000 euro, 3 logela trastelekuarekin 227.500 euro, 4 logela trastelekuarekin 283.000 euro, etxebizitzak terrazarekin 225.000 eurotik hasita. Garajeak aukeran. PRECIOS DIRECTOS DEL PROMOTOR! ETORRI PISO ON-era!
SAN IGNACIO Erref. 002-870
192.323€ (32 milioi)
Eraikuntza berria. Beheko solairuak. 2 logela, 2 komun eta sukalde handia. Eguzkitsua. Estreinatzeko.
KALITATE-PREZIO PAREKAEZINA!
DURANGO
DURANGOKO ZONALDEAN 3 LOGELA, IGOGAILUA, GARAJEA ETA GANBARA DITUZTEN ETXEBIZITZEN BILA GABILTZA
EROSLEA DAUKAGU!
Konfiantzaren balioa
piso on .com
zure etxea saltzeko edo erosteko...
Zertifikatutako Bizkaiko lehen inmobiliaria sarea
ISO 9001
BUREAU VERITAS Certification

# Bizimodua errazteko

ASTE BATEAN **DOAN**
PROBATZEKO AUKERA!



## iROBOT ETXE ASPIRAGAILUA ROOMBA

ROOMBA-531 - 390 euro
ROOMBA 534 PET - 450 euro
(bez barne)



## Salmenta eta zerbitzu teknikoa



## iMOW BELAR MOZTAILEA

MI 322 C (400m2) - 1.520 euro
MI 555 C (2000m2) - 2.230 euro
(bez barne)



JUAN BERISTAIN
NEKAZAL TRESNAK

Oidor Berriozabalbeitia, 14
(Estazio zaharra)
48230 Elorrio
Telefonoa-Faxa: 94 623 18 03

juanberistain@telefonica.net

# azokaren hastapenak argazkitan


















Argazkiak: FotoSOL - Gerediaga artxiboa

# Durango Bai, +Dendak eta Gerediaga elkarteen loturatik

Durangoko merkatari elkarteetako kide diren dendetan banatuko dituzten txartelak eskatutako datuekin bete eta Gerediagako standean entregatzea da proposamena.

Durangoko Liburu eta Disko Azokarako, +Dendak eta Durango Bai merkatarien elkarteek eta Gerediaga elkarteak aurten lehenengoz martxan ipiniko duten proiektua da *Erosketekin azokara* ekimena. Helburu bigaz bultzatu dute elkarteok kanpaina: herriko merkataritza bultzatzea eta Gerediaga elkarteak burutzen duen lana gizarteratzea dira helburuok. Antolatzaileen berbetan, "jendeak lotura bat ikusi dezala nahi dugu Durangoko Azoka eta Durangoko komertzioen artean".

"Jendeak Azoka eta komertzioen artean lotura ikusi dezala da helburua"

Durango Bai eta +Dendak elkarteetako kide diren dendetan banatuko dituzte *Erosketekin azokara* ekimeneko sei mila txartel: bertan eskatzen diren datuak beteta, txartela Gerediagaren Azokako standean entregatzen dutenen artean Durangon erosketak egiteko 100 euroko txartel bi zozketatuko dituzte urtea amaitu orduko.

Durangon erosketak egiteko 100 euroko txartel bi zotz egingo dituzte

Liburu eta Disko Azokara gerturatzen den jendea Durangon "zer ikusi eta non erosi" badagoela ohartaraztea da asmoa. Lehenengo pauso honen ostean, "beste gauza asko egin ditzakegu hiru elkarteon artean", azpimarratu zuten aurkezpenean.

"Gerediaga elkartea ez dago historiara begira bakarrik, etorkizunera begira ere bagaude", azpimarratu zuen Jon Irazabalek, eta horren adibide da eragile ekonomiko edo sozialekin elkarlanean jardutea. "Helburuetan adostasuna dagoenean, positiboa da elkarlana", nabarmendu zuten.




## 'Txistua XXI. mendean kontzertua' entzungai

*Txistua XXI. mendean* kontzertua antolatuko dute abenduaren 6an, 19:00etan, Durangoko San Frantzisko elizan. Txistua pianoagaz eta txistu banda entzuteko aukera izango dute bertaratzen direnek. Saioan hainbat obra estreinatuko dituzte. David Cantalejok (pianoa) sortutako *Quadrivium* lana autoreak berak Aitor Amilibiagaz (txistua) estreinatuko du, baita Joaquín Lekunberriren *Luzaideko bariazioak* ere.

Txistu bandan Sergio Torices (txistua), Fernando Aurrekoetxea (txistua), Iñaki Martin (silbotea) eta Aritza Castro (atabala) arituko dira. Ruper Lekueren *Ustrukoaren dantza* piezaz gainera, Rodrigo A. Santiagoren *Sonata N° 3* obra estreinatuko dute. Karlos S. Ekizaren *Durango 5/3* pieza ere joko dute.




# Liburuan gordetako hitz eta hotsak 70eko disko-jogailuan entzungai

Azokaren bi elementu nagusiak uztartu gura izan ditu Fede Bosch kartel egileak aurtengo Durangoko Liburu eta Disko Azokako kartela diseinatzerako orduan.

Publizitate enpresentzat behar egiten duen Fede Bosch diseinatzaile grafiko kataluniarraren kartela aukeratu du Gerediagak hautatu duen epaimahaiak aurtengo Durangoko Liburu eta Disko Azokarako. Egileak azaldu duenez, Internet bitartez jaso zuen Durangoko Azokaren berri, eta sarean aurreko edizioetako informazioa bilatu ondoren hasi zen lana osatzen, diseinatzaile grafikoak gaineratu duenez. Azokako egunetan alde guztietan ikusgai dugu kataluniarraren lana.

Publizitate enpresentzat lan egiten du Fede Boschek

Hasieran osatu zuen irudia "barrokoagoa" zela kontatu du Boschek, eta ondorengo prozesuak sinpletasuna bilatzera eraman zuela. Horrela, zuriaren gainean 70eko hamarkadakoa dirudien disko-jogailua eta gainean azal urdindun liburua jasotzen ditu kartelak: "Azokaren bi elementuen bateragarritasuna islatu gura izan dut; irakurri eta musika entzun, biak batera egin daitezkeela erakusteko", sortzailearen berbatan.

Aitziber Atorrasagasti Gerediaga elkarteko gerenteak azpimarratu duenez, guztira 49 lan jaso dituzte 45. Durangoko Liburu eta Disko Azoka iragartzeko kartela aukeratzeko lehiaketara. Horietariko 10 Euskal Herritik kanpoko egileenak izan direla eta beste 10 Durangaldeko sortzaileek aurkezturikoak direla azaldu du Atorrasagastik. Gerediagak laugarrenez antolatu du Azokako kartel lehiaketa. Aurretik, Durangaldeko artistaren bati eman ohi zioten enkargua.

Gerediagak laugarrenez antolatu du kartel lehiaketa




BAUTISTA
MUEBLES Y DECORACIÓN
LAUDIO ABADIÑO
KALITATEA ETA PREZIO EGOKIA
EZ DIRA BETI ELKARREN ETSAI
AUKERATU EZAZU ORDAINTZEKO MODUA
ETA GUSTUKOEN DUZUN BEHERAPENA
www.bautistamuebles.com
Santa Kurutz ind. 1 zk. LAUDIO (A-68aren 3. irteera) • Urbitarte ind. 4. partzela, 2. pabiloia ABADIÑO (Eroski ondoan)
BEZEROAREN ARRETARAKO TELEFONOA: 94 672 77 00

anboto komunikabideak
Egoitza: Bixente Kapanaga, 9 48215-Iurreta (Bizkaia) Tel.: 94 623 2523 Harpidetzak: 94 681 65 58
Publizitatea: 94 621 79 02 publi@anboto.org Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 9.200 ale
397 zk. 2010eko abenduaren 3a



■ Izaskun Ellakuriaga

# “Jende gutxik sinetsi dezake Durangoko Azoka lau lagunek antolatzen dutela”

Durangaldea lan-eremu daukan elkarte txikiak Euskal Herri osoan oihartzuna izango duen ekintzarako askoren gogo eta ilusioa batu ditu

**Abadiñoko aita-alabak sarri ikusi ditzakegu Gerediaga elkartean laguntzen. Azoka egunetan ere, elkartearen erakusmahaian edo informazioko txokoan, txandaren bat edo beste egitea tokatuko zaie. Jose Antonio, aita, luzaro izan da gainera Azokako antolaketa taldekoa eta Gerediaga Elkarteko zuzendaritzakoa. Oihana alabak hartu dio testigua azkeneko urteetan.**

**Noiztik Gerediaga elkarteko bazkide?**

**Jose Antonio:** Nik esango nuke Gerediaga hasi zenetik bizi izan dudala. Beharbada, elkartea sortu eta bi-hiru urtera hasiko nintzen. Sasoi hartan zeozer egin behar zen. Ni, alfabetatze kanpainagaz hasi nintzen, beste batzuekin batera. Era horretako ekimenek Gerediaga elkartean arnasa, babesa eta bidea egiteko modua aurkitu zuten. Erakunde, talde edo elkarte horiek ezin zuten legeztatzeko modurik topatu orduko aginteagaz, eta Gerediaga horientzat guztientzat babeslekua izan zen. Orduko erregimenari gol handia sartu geniola esango nuke.

**Oihana:** Guk etxean Gerediaga txikitatik bizi izan dugu. Aita eta ama, biak dira elkarteko kide, eta Gerediagak antolatzen duen ia ekintza guztietan eskua botatzen dutenetakoak. Azoka ere txikitatik bizi izan dugu.

Jose Antonio eta Oihana Azkorbebeitia •

Gerediaga elkarteko kideak

**Aitak alabari zer eraskutsi dio?**

**J.A.:** Dena. Erakutsi beharrik ere ez da egon, ekinagaz ikusi eta ikasi dute gurean Gerediaga zer den. Auzolana aipatu da aurten. Baina auzolana orain eta lehen, beti izan da gure elkartean. Jende askoren borondate barik nekez egin daitezke hainbat ekintza. Lehenengo urteetako azoketan, etortzen ziren argitaldarien eta erakundeen standak atenditzeko elkarteko bazkideak egoten ginen beharrean. Kontuak atera!

**Ezer ez dakien bati zelan azaldu zer den Gerediaga.**

**Oihana:** Ez da erraza. Durangaldea bere osotasunean hartzen duen elkartea da. Kulturgintzan diharduen elkartea, eta norbere herria barrutik eta gehiago ezagutzeko aukera ematen duena.

**J.A. :** Izenak berak esaten du: Durangaldeko adiskideen elkartea da. Azokan erakusmahai berezia izango dugu aurten. Bertara datorrenak, zuzeneko informazioa jasoko du Gerediaga zer den jakiteko. Gura duenak bazkide egiteko modua ere izango du.

**Bazkide egin daitekeenik askok ez daki. Eman egizue bazkide egiteko arrazoi bat.**

**Oihana:** Durangaldeaz egarria daukanak, gure herria zer izan den, zer den ezagutu gura duenak... Gerediaga elkartean lekua dauka, laguntzaile modura zein bere ekarpena eginez.

**J.A. :** Urtean 20 euro dira, eta Gerediaga elkarteak argitaratzen dituen liburuxka guztiak doan jasoko ditu. Azokan bertan bazkide egiten denak opariren bat ere jasoko ei du.

**Azoka da Gerediaga elkarteari oihartzuna eman dion ekimena. Lan hadiena ematen diona ere bai, ezta?**

**J.A. :** Jende gutxik sinistu dezake Durangoko Azoka lau lagunek antolatzen dutena. Gero, gure moduko asko gaude azoka egunetarako prest eta zeregin jakinetan laguntzen. Baina benetan antolatu, laubost lagunek. Gurea oso elkarte txikia da, eta dakigun ondoen eta ahal dugun ondoen antolatzen dugu Azoka.

**Txikitako Azokak zelan gogoratzen dituzue?**

**Oihana:** Nik hotzez. Gerediagako standa edo informaziokoa beti ate ondoan, sarreran, izaten dira, eta gaur egungo gunean ere sarri hotza izaten dugu.

**Zer dauka Azokak horrenbeste jende erakartzeko?**

**J.A.:** Hasierako edizioetatik dator jende mordoa Durangora. Jendeak azoka egunen bat beti dauka apuntatuta egutegian. Bi-lau berbatan gaitza da azaltzen zer daukan Azokak, nik pentsatzen dut bertatik bertara bizi behar dela.



PROMOZIO BERRIA: 23 ETXEBIZITZA - LOKAL KOMERTZIALAK - GARAJEAK
FAUSTEGOIENAN (DURANGO)
ETXEBIZITZAK
1, 2, eta 3 logela
Armairu aurrealdeekin
ORDAINKETA EGITEKO AUKERA PAREGABEAK
bbk -k finantziatua
PREZIOAK:
165.000 €-tik aurrera
(BEZ gabe)
Lehen mailako materialak
Garajea eta trastelekua aukeran


ERAIKUNTZA ETA GESTIOA
ARGOLABE, S.A.
Joxemiel Barandiaran, 8 A, 1ºC - DURANGO
Tel.: 94 681 44 95 • Mug.: 650 397 007
e-mail: argolabe@hotmail.com